

Goienkaria

ASTEKO GAIA:
KORRIKA
DEBAGOIENEAN
ZE HAR /2-3

EGUBAKOITZA • 2001eko apirilaren 6a • II. urtea •

17. zenbakia • DOAN BANATZEKO

XABIER SARASUA

"Ezin gara politikoei begira egon, noizean behin botoa ematearekin nahiko dugula pentsatuz" /9



HERRIZ HERRI

Bergarako Udala euskalduntzeko planaren bigarren aldia abian /4

Goienka2a

Bailarako irrati-gidatuzaleen gorabeherak

ARETXABALETAKO UDALAK ASTELEHENERA ARTE ATZERATU DU GAZTETXEAREN GAINEKO ERABAKIA

Gaztetxea kolokan

Joan den astean Aretxabaletako Udalak gaztetxea ixteko agindua eman zuenetik, hainbat mobilizazio eta protestaldi egin dituzte gaztetxeok. Hala ere, bi aldeek elkarrizketaren alde egin dute.


Martitzenean, udalak proposamen berria egin zion Aretxabaletako Gazte Asanbladari. Hausnarketarako denbora emanez, udalak apirilaren 9a arte luzatu du gaztetxearekin zer egin

erabakitzeko epea. Bitartean, AGAk baldintza batzuk bete beharko ditu. Hala nola, tabernaren erabilera bertan behera utzi, 20:00etatik aurrera egoitza itxi, eta elkarrizketa bidez udalarekin harremana izan beharko du. Proposamen hori onartu egin dute gaztetxeo kideek. Horrela, eguaztenean taberna itxi eta gaztetxearendako proiektu berri bat egiten hasi ziren. /4



Aretxabaletako gaztetxeok plan berria aurkeztu beharko diote udalari.

GOIO ARANA



Ganadurik gabeko feria

Bergarako Erramu Zapatuko feriak gabezia nabarmena izango du aurten. Bihar, zapatua, ospatuko dute, baina abelgorri eta ardirik gabe. Arrazoi ahoeria edo sukar aftosoa da. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak otsailaren 28an emandako aginduaren arabera, ezingo da ganadu feriarik egin aziendak ahoeriatik babesteko. Agindua, gainera, mugarik gabekoa da. /MONIKA BELASTEGI

Ia 400 milioiko aurrekontua Antzuolako Udalak

Antzuolako Udalak 396 milioi pezetako aurrekontua onartzeko zuen eguen iluntzeko osoko bilkuran. Ia laurehun milioi horietatik, %40,6 inbertsioetara bideratuko dituzte, 156 milioi, hain zuzen ere.

Aurtengo inbertsioetako zatiirik handiena hirigintzarako eta kulturarako erabiliko dute. Hirigintzarako 80 milioi: besteak beste, errekaren desbideraketa eta industrialdea egiteko hainbat lursail erosiko dituzte; urbanizazio lan batzuk ere egingo dituzte, eta baita umeendako jolas parkea ere herri eskolaren aurrealdean.

Baina, aurtengo inbertsio garrantzitsuena kultura etxea egiteko aurrez ikusi dutena da, zalantzarik gabe. Aurten, 63 milioiko inbertsioa onartzeko ak ziren. /4

Arrasateko Amaia antzokia itxi egingo dute obrak egiteko

Datorren maiatzaren 2an, Amaia antzokia itxi egingo dute, antzokia egokitzeko eta konpontzeko. Zortzi hilabetez egongo da itxita.

Amenabar Eraikuntzak enpresak egingo ditu konponketa lanok, eta 222.230.613 pezetako aurrekontua du horretarako. /5

Gure Bailarako Patxarana



ARBASO PATXARANA

BERTAKOA, NATURALA

Nafarroa etorbidea, 23 M1 pabilioia • ARRASATE • 943 79 10 69

Debagoiena

Gau partean edo goizaldeko ordu txikieta harrera eta parte hartze beroa izan zuen

XABIER URZELAI

Korrikarekin lehenengo hartu-eman Bergaran izan genuen. Bagenekien ibilaldian zehar hainbat kazetari lurrera erori direla furgonetatik, eta gu gutxiago ez garenez, Antzuolara bidean, esperientzia hori probatu genuen. Antzuolara iristean, Deskargako aldapak lan ederrak eman zizkigun, baina gure bailarak hantxe duenez muga, Deskarga antzuolarrei utzi genien. Txantxiuarek harrera beroa egin zioten Korrikari, eta euri tantek ere Korrikan parte hartu gura izan zuten. Elorregitik hasi eta Zigarrola artean jende mordo zegoen bide bazterrean, eta Arrasatera iristean, herri erdi Korrikaren zain. Arrasatetik Aretxabaletarako bidea hartu zuen Korrikak, eta Aretxabaletan bertan, leihotetan zeudenak ohartu ere ez ziren egin, jendetsua izan arren, Korrika sekulako abiadan igaro zen-eta herritik. Eskoriatzatik aurrera, ibilbidea maldan gora jarri zen, eta eskoriatzar asko ez, baina zeudenak, umorea lagun. Kantu eta oiherarte ekin zioten Gatzagarako bideari, eta bidean, hainbat auzotako lagunek txanda hartzen zuten. Borondate handiko eta sasoi bete-beteko hogeita hamar bat lagun iritsi ziren Gatzagara, eta herriko kalea zeharkatu eta gero, traktore batek atzetik jarraitu zion Korrikari. Arabara iristean, traktoreak gatzagarak jaso eta berriro bueltan ekarri zituen. Gatzagako azken maldetan egin genuen azken korrikaldia, eta goizeko lauretan, Arabako mugan, legutiar koadrila bat zegoen Korrikaren zain, gorantziak beraie! eta segi Baiona arte, domekan azken besta hantxe ospatuko da eta. Autobusak daude, hortaz, adi!



Bergara/21:12

Bergaratik sartu zen Korrika Debagoienara. Osintxutik hasi eta San Antonion azken aldiz lekukoa hartu arte (Mariaren Lagundiko Gotzon Iparragirrek), bederatzi kilometro egin zituen. Bederatzi kilometro horiek, hamalau talderen artean erosi zituzten. Alkateak ere egin zuen antxintxika. Jende gehien San Martin plaza inguruan batu zen, 400 bat lagun. Arratsaldean, ikastetxeetako neska-mutikoez Korrika Txikia egin zuten, eta ostean klarionada San Martin plazan.

Antzuola/21:12

ere Elaykoek hartu zuten Matz Erreka eta Goizperetro bana. Debagoieneko batu zen Korrikaren inguruko Elkarak elkarrekin egin zuten.



Arrasate/02:05

Ehunka pertsona bildu ziren Elorregi, Kataide eta Musakola inguruetan, Korrikari ongiatorria egin eta bat egiteko.

Horien artean, herriko euskalgintza, jai batzorde, ikastetxe, herri ekimen eta elkarteak ordezkatur. Mila lagunetik gorako lasterkariaren artean, Maritxu Kajoi batzordeko Arristik, frak eta guzti, AEDko Anderrek patinekin, herriko presoaren irudiak, edo atxilotu arren aske dagoen Xabik berak lekukoa eraman izana nabarmendu daiteke, beste batzuen artean.



Aretxabaleta/02:27

Udalerriko hiru kilometroak 10 talderen artean banatu behar izan zituzten, eta zenbait talde halabarrez kanpoan gelditu ziren. Giro ezin hobean igarotako Korrikak kide berria izan du aurtengoan: Aretxarte merkatari elkarte, hain zuzen. Jende ugari parte hartu zuen, tartean arrasatear asko, eta txalaparta eta musikaren bitartez areagotu zuten lasterkari euskaltzaleek zuten bizitasuna. Lekukoa eramateko orduan, Joseba Larrinagak ez zuen kale egin.

Eskoriatza/02:27

kilometrotan, 16 elkarte eta etxafuego soinupea Bitxikeria gisa, eskoriatza ordezkariek herri erdi inguruan Marulanda inguruan ote zuten!

ARETXABAETA

GAZTETXEA

Gaztetxearen gaineko proiektu berria aurkeztu beharko du AGAk

Hainbat batzarren ondoren, udalak proposamen berria egitea erabaki du

AMAGOIA LASAGABASTER

Martxoaren 27an, gaztetxea uzteko agindua eman zuen udalak. Gaztetxeako ordezkariak, berriz, argi utzi zuten ez zirela joango. Hori dela eta, aste osoan tirabira ugari izan da gaztetxearen gaineko auzian. Gaztetxeako kideek mobilizazio eta protestaldi ugari egin dute azken egunotan. Hala ere, bi aldeek elkarrizketa bidezko irtenbidea topatu nahi izan dute.

Horrela, joan den martitzenean, udalak proposamen berria egin zion Aretxabaetako Gazte Asanbladari. Hausnarketarako denbora emanez, udalak apirilaren 9a arte luzatu du gaztetxearekin zer egin erabakitzeke epea. Bitartean, AGAk balditza batzuk bete beharko ditu. Hala nola, tabernaren erabilera bertan behera utzi, 20:00etatik aurrera egoitza itxi, eta elkarrizketa bidez udalarekin harremana izan beharko du. Proposamen hori onartu egin dute gaztetxeako kideak. Horrela, eguaztenean taberna itxi eta gaztetxearendako proiektu berri bat egiten hasi ziren. Horretarako, egunero



Gaztetxeakoak irtenbidea aurkitzeko prest daude.

GOIO ARANA

batzartuko dira AGAkoak, apirilaren 9a bitartean. Batzar horiek herriko gazteen iritzia batzeko egingo dira, horregatik, proiektuan parte hartzeko deialdi zabala egin dute.

Gaztetxearen inguruko auzia sortu da udalak gaztetxeako kideekin garai baten egindako hitzar-

mena ez delako bete. Akordioan, besteak beste, ordutegiak, asanbladaren eraketa eta kultura batzordeetan parte hartzeko erabakiak hartu ziren. AGAkoek diote akordioa bete dela. Udalak eta Galartzan izan ziren gazte batzuek, ordea, zalantzan jarri dute AGAk esandakoa.

OÑATI

MUSIKA TALDEENDAKO LOKALAK

Musika egoitzen kudeaketa erabakitzeke batzarra egin dute

Musika taldeetako ordezkariak eta udalak gutxieneko arauak adosten dihardute

AINTZANE IRIZAR

Eguaztenean, hilaren 4an, udaleko arduradunak eta musika taldeetako ordezkariak bildu ziren udaletxean. Batzar horren helburua udalak herriko musika taldeendako egindako lokalen banaketa eta funtzionamendu arauak adostea zen. Lokalen barne kudeaketa musika taldeek sortu duten koordinadorearen esku geratuko da, baina gutxieneko arautegia adostu gura dute. Horretarako, udalak proposamena aurkeztu zuten musika taldeen ordezkariak. Orain, koordinadoreko kideek proposamena aztertu eta euren desadostasun eta iritzia azalduko dizkiete udal agintariari.

Bai udaleko arduradunek eta baita koordinadoreko kideek ere batzar eta hartu-eman horien "oso balorazio positiboa" egin zuten, eta laster baten, behin betiko adostasunera iristeko itxaropen garbia azaldu zuten.

Ia bukatuta daude lokalak. Errekaldeko herri eskolako sotoetan daude. Duela hilabete batzuk hasi zituzten lanak, eta zazpi lokal berri egokitu dituzte, herriko musika taldeek entseatzeko. Ordu arte, bi lokal bakarrik zeuden. Bestalde, kontuan hartu behar da talde askok entseatzeko dutela garajeetan, eta beste askok ez dutela entseatzeko lokalik ere. Lokal berriak egiteko arrazoietako bat horixe izan zen. Bestalde, "Errekaldeko bi lokalak oso egoera txarrean zeuden, eta lehenbailehen zerbait egin beharra zegoen", Ernesto Murgiondo Kulturata batzordeko buruak esandakoaren arabera.

Ez dago jakiterik zenbat musika talde dagoen Oñatin, baina lokalak erabiltzeko udalak egindako batzarretan hamabi musika taldeetako ordezkariak bildu dira. Hamabi talde horiek, gainera, koordinadora osatu dute, eta zazpi lokal horien banaketa adostu.

Zertzelada

Dauden hamabi taldeek koordinadora osatu dute, zazpi lokal berrien banaketa adostu eta kudeatzeko; udalak aurkeztu dien arautegia adostea besterik ez da falta

ANTZUOLA

UDAL AURREKONTUAK

Aurrekontuak, 396 milioi, onartzekoak ziren atzo

Kulturaren eta hirigintzaren inbertituko da gehien

AINTZANE IRIZAR

Eguen iluntzeko osoko bilkuran onartzekoak ziren aurtengo aurrekontuak, 396 milioi guztira. Horietatik %40,6 inbertsioetara bideratuko dira, 156 milioi, hain zuzen ere.

Aurtengo inbertsioetako zatirik handiena hirigintzarako eta kulturarako erabiliko da. Hirigintzarako 80 milioi aurrez ikusten dituzte: besteak beste, erreka desbideraketa eta industrialdea egiteko hainbat lur sail erosiko dituzte; umeendako jolas parkea ere herri eskolaren aurrealdean; urbanizazio lan batzuk egiteko asmoa ere bada, besteak beste, frontoitik Kalebarrenera oinezko pasabide bat egingo dute laster.

Baina aurtengo inbertsiorik garrantzitsuena Kultur Etxea egiteko aurrez ikusi dutena da, zalantzarik gabe. Aurten,

63 milioiko inbertsioa onartzekoak ziren. Kontuan hartu behar da, baina, guztira 229 milioiko aurrekontua duela proiektu horrek. Gainerako dirua aurreko hiru urtetako aurrekontuetan onartu zuten; iaz, esaterako, 110 milioi. Mireia Unamuno alkatearen esanetan, "dirutza handia da hori Antzuola bezalako herri batentzat, baina lehenago edo beranduago kultura etxe egoki bat egin beharra zegoen herrian". Azkenean, badirudi aurtengo uda baino lehen hasiko direla Kultura Etxe berria egiteko lanak.

Goienkariako erredakzioa ixterakoan oraindik aurrekontuak onartzeke zeuden. dena dela, ez zen arazorik egongo zenik aurrez ikusten. Izan ere, batzorde bakoitzak bere aurrekontuak landu ditu, eta, ohi bezala, udaleko alderdi politiko guztien artean adostutakoak dira.

Zertzelada

Hirigintzan 80 milioi inbertituko dituzte, besteak beste, erreka desbideratzeko lur sailak erosten; kulturaren, berriz, 63 milioi, Kultur Etxe berria egiten

BERGARA

ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEN

Udalean zeregin administratiboa duten langileen %100 euskalduna da

AEBE planaren emaitzak jakitera eman zituzten martitzenean

MONIKA BELASTEGI

1995ean jarri zuen plana abian Udalak. Planaren helburua Udalaren jarduna, ahal den guztietan, euskaraz izatea da. Lehenengo fasea amaituta, bigarrenari ekin diote.

Eusko Jaularitzaren laguntzaz jarri zuten abian AEBE plana. Udaletxeetan euskararen erabilera normalizatzeko plan pilotua zen, eta Bergarakoarekin batera, Antzuolako Udalean ere jarri zuten martxan.

Urratsak, hala ere, lehehagotik zetozen. 1990ean lanpostu bakoitzerako hizkuntza maila finkatu zuten, eta langileek euskara ikasketako prozesuari ekin zioten Bergaran. AEBE plana, 1995ean emandako beste urrats bat izan zen. Ahal legin horren ondorioz, eta planaren lehenengo fasea bukatuta, Udalarako funtzionamendua ia guztiz euskaraz da. Kanpokoekiko harremanetan ere aldaketa nabar-



Euskara teknikari, Udal buru eta langileak martitzeneko prentsaurrean.

mena egon da. Plana abian jarri aurretik, gobernurako idatziak, esaterako, %30 ziren euskaraz; gaur egun, %90etik gora.

Bigarren faseko asmo nagusiak hauek dira: orain artekoak sendotu eta finkatzea, euskararen erabilerrari dagokionez ahulen dauden arloak sakonago lantzea eta hizkuntza kalitatea hobetzea.

KANPAINA INFORMATIBOA

Herritarrak dagokion moduan informatuta izateko, triptikoa bidaliko dituzte etxe eta erakundeetara. Hantxe, Udalak normalizaziorako eman dituen urratsak azalduko dituzte. Bestalde, Udal idatziak euskaraz jasotzea eskatzeko orria ere banatuko dute.

ELGETA

INGURUMENA

Etxeko olioia bildu, birziklatu eta xaboi edo margo edo... bihurtu

IBAN ARANTZABAL

Maya ingurumen elkarteak da olioia jasotzeko ideia izan eta aurrera eramango duena. Olioia apirilaren 25ean batuko duten arren, gaurtik bertatik komeni da ideiarekin bat egiten duten guztiek olioia gordetzen joatea. Edozein edukiontzitan eraman daiteke plazara, eta han azalduko diote gura duenari zer egin daitekeen batu ostean, zergatik den garrantzitsua olioia batzea eta abar.

Mendizaleen plazan batuko dute olioia, eta ordu eta erdian egongo dira plazan, 18:00etatik 19:30era bitartean, hain zuzen ere.

Kanpaina horren helburu nagusia ingurumena babestea izango da, eta horretarako, birziklatu eta berriro erabiltzeko gonbita egin du Maya elkarteak. Ekimena ondo irtetzen bada, aurrerago ere horrelakoak egiteko aukera zabalduko da, nola bait gure ingurua

zaintzeko urratsak emanez eta ingurumenarekiko errespetua landuz.

Mendizaleen plazan jasotzeko enpresa batera eramango dute, han tratatua izan dadin. Gogora ekarri, batutakoarekin xaboiak, kosmetikoak, margoak, betuna eta antzekoak egin daitezkeela, eta horrela, kutsagarri izan daitekeen olioari irtenbidea ematen zaio, edozein lekutara bota eta tratatu gabe lurra xurgatu beharrean.

Sentsibilizazio kanpaina izatetik, zerbait praktikoa egin gura izan dute Mayakoek, eta esan beharrik ez dago horrelako ekintzak egitea oso garrantzitsua dela. Argi dago munduko ekologia-arazo guztiak konpontzeko errezeta bakarra horixe dela, horrelako kontu txiki eta, era berean, eraginkor mordo bat egin eta jendea hezitzea.

Mayako lagunek, hortaz, ez dute erronka makala eskuartean. Ea Elgetako, biztanleek zelan erantzuten duten.

Zertzelada

Olioia birziklatu eta berriro erabiltzeko proposamena egin du Maya ingurumen taldeak. Apirilaren 25ean bilduko duten arren, gordetzea komeni da gaurtik bertatik

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Amaia antzokia itxi eta ganorazko konponketak egingo ditu udalak

Maiatz hasieran itxiko dute eta zortzi hilabetean egingo dituzte obrak

UBANE MADERA

Datorren maiatzaren 2an, Amaia antzokia itxi egingo dute, antzokia egokitzeko eta konpontzeko. Zortzi hilabetez egongo da itxita. Amenabar Eraikuntzak enpresak egingo ditu konponketa lanok, eta 222.230.613 pezetako aurrekontua du horretarako.

SEGURTASUN NEURRIAK

Batetik, antzokiak dituen segurtasun beharrak aztertu eta bete egingo dira. Esaterako, agertokia sendotuko dute, suari aurre egiteko neurriak ere indarrean jarriko dituzte eta, oro har, eraikin osoa uretik babestuko dute. Hauxe da, hain justu, egingo duten lanik handiena. Antzokian jarleku edo besaulki berriak jarriko dituzte, egoitza intsonorizatu egingo dute, agertokiko atzeko oihala ere aldatuko dute eta argiztapena berrituko dute.

Bestalde, sarrerako pertsianak kentzea erabaki dute, eta lehenengo solairura eta agertokira igotzeko gutxituendako pasabideak egokituko dituzte. Horrez gain, aldagelak ere egingo dituzte eta berogailu sistema



Datorren urteko otsaila arte itxita egongo da Amaia antzokia.

UBANE MADERA

berrituko dute, izan ere, orain dagoenak zarata larregi ateratzen du, eta gainera, antzokiaren goiko aldea gehiegi berotzen ei du.

KAFE ANTZOKIA

Eta ez hori bakarrik. Sarreran dagoen tokia aprobetxatu eta kafe antzoki bat egiteko asmoa dute. Horretarako, orain dagoen barra dagoenetan utziko dute, eta haren parean egurrezko taulatxo bat erakikiko dute. Era berean, taularen parean mahaia ipiniko dituzte.

Eta kanpoaldean ere sumatuko ditugu aldaketak; izan ere, antzokiaren ondoko lokala hartu, berritu eta txartel leihatila hortxe kokatuko da.

Hori guztia egiteko, esan bezala, zortzi hilabete ditu Amenabar enpresak, eta jakina, tarte horretan itxi egingo dute antzokia; baina, udalak beste baldintza bat ere ipini dio: abenduan egin ohi den nazioarteko akordeo txapelketarako antzokia erabilgarri egon behar da.

ARAMAIO

ESKORIATZA

OMENALDIA IRAKASLE ESKOLAN

Ekonomia teknikaria hartu nahi du Udalak

UBANE MADERA

Udalak ekonomia arloan jarduteko teknikaria behar duela eta, lanpostu hori betetzeko deialdia egin du. Behin-behinekoa da lanpostua, eta urtebeterako kontratua izango du.

Enpresa Administrazioan lizentziadunei (Ekonomian edo Enpresa Zientzietan lizentziadunak) dago zuzenduta deialdia. Lehiaketara aurkezten direnei Hirugarren Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea eskatuko diete, edo bestela, udalean egingo den froga gainditzea. Eta horrez gain, Office 97 eta Windows 95 programak erabiltzen jakitea ezinbestekoa izango da.


Eskaerak aurkezteko epea datorren apirilaren 20an bukatuko da, eta adi ibiltzea komeni da; izan ere, deialdia ez da buletin ofizialean ez beste inon ere iragarriko.

Oinarriak udalean daude eskuragai, eta hara jo beharko da. Bestela, telefonoz edo internet erabiliz ere jar zaitezke harremanetan. Helbidea hauxe da: udala@aramaio.org



Irakasle Eskolako aitzindariak.

Joan zen egubakoitzean omenaldi beroa jaso zuten Eskoriatzako Irakasle Eskolako aitzindariak. Zehazki, hiru izan ziren HUHEZIKO fakultatean, eta Irakasle Eskolaren 25. urteurrenaren inguruan omenduak: alde batetik Juan Mari Otaegi, Irakasle Eskolako lehen lehendakaria izandakoa, bestetik Felix Ormaetxea lehen zuzendaria izan zena, eta, azkenik, Mertxe Bolinaga, erretiratutako lehen langilea. 25. urteurren honen ospakizunen barruan, atzo ziren biltzekoak Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzain ohia, eta Gaillot gotzain frantziar ospetsua, "Erlijioa XXI. Mendean" jardunaldien barruan. Era berean, ezin aipatu gabe utzi, maiatzaren 10 eta 11an izango den Federico Mayor Zaragoza, UNESCOko lehendakari ohia. /IÑIGO BIAIN



Gizonak
Emakumeak

Jantziak

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12

Ibai-arteren
bazkide

Oñatiarrei urteetan
konfiantza eta zerbitzua emanez.

GARAI HARATEGIA

...eta ez zaitzatela
zoratu!

Maiatzaren 1a plaza, 2
ONATI
Tel.: 943 78 02 59



Zabalik

DIEGO
MARTIARTUEtxebizitza@
inuxente.org

Nire lagun Jokinek etxea erosi zuen iaz, herri erdian, eguzki begia: 37 kilate. Jokinen emaztea, Mireia, lan barik geratu berri da. Orain, Jokinen soldatarekin bakarrik ezin diote aurre egin hileroko 120.000 pezetako kredituari *plus* etxeak eta alaba jaioberririak dakartzaten gastuei. Etxe zahar-zahar bat alokatu behar izan dute, harrobi ondoan, (eg)uzki begia: hilean 65 talego.


Bizitzaren paradoxak: batzuk baserri/txaleteko lorategian begoniak ala gardeniak landatu burua apurtzen dabiltzan bitartean, beste batzuk, Jokin bezalakoak, Panolirena egiten, hau da, Kawasakia erosi zuen hark bezala... gasolarako lain euki ez eta motorra bera saldu erregaia erosteko.

Zoragarria da (zoratzeko modukoa esan gura dut) agintean daudenek etxebizitzaren salneurri estratosferikoak erakusten duten sentiberatasun aparta. Hola jarraituz gero, ez nintzateke harrituko etxe-erakitzaila eta banketxeen aldeko ONG-ak bultzatzen hasiko balira "gure" erakundeak. Hamaika ikusteko jaio ginen eta dagoeneko hamahirugarrenarekin ez gara espantuka hasiko. Eta gazteak zer, kexu direla? Ba to Gazte Txartela, zinemara joateko, ea ostiatxarra pasatzen zaizuen. Aita-amen hotelean ez zarete majo bizi ala? Non jango dituzue ba bestela amatxorenak moduko baba gorriak, koitaduok? Itxoin urtetxo batzuk, joño, itxoin atso-agureak hil arte (edo akaba itzazue zuek zeuok, rediora!), hola etxea heredentzian hartuko duzue eta!

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokiak, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIA bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Eliza giza eskubideen
alde

Elizbarrutiak beti gaitzetsi izan du edozein motatako indarkeria eta beti gaitzetsi izan du giza eskubideen urratzea; bereziki, bizitzarako eskubidearen urratzea. Gainera, biktimekin eta haien senideekin bat egin du, euren mina konpartituz.

Elizak egindakoekin ados ez dauden zenbait erakunde politikoren eta sozialen kritikak jaso izan ditugu; askotan, benetako eta ganorazko informazioa plazaratzeko ditugun gutun pastoralak irakurtzen ez dituztenenak, alegia. Horrez gain, sarritan, kritika horien azpian arrazoi alderdikoak eta hauteskondeekin zerikusia dutenak izaten dira.

Elizbarrutiak preso arrunt eta politikoei eskaintzen die laguntza, eta baita haien senitartekoei ere; eta laguntza hori, lehenbizi, kristau jatorrikoa da; giza laguntza, soziala eta multzo horrenganako hurbiltasuneko; alegia, aldi baterako, justizia auzitegien epaia dela eta, delituren bat egiteagatik, askatasuna galdu duen talde bat, baina pertsona bezala, duintasuna izaten jarraitzen duena, eta hortaz, euren eskubideak errespetatu behar dira eta gizartean txerta daitezen lan egin beharra dago. Gaur egun, gure elizbarrutian, artzapez-barruti eta parroketan presoez eta euren familiez arduratzen diren, bisitan joaten zaizkien

eta euren familiekin harremanetan dauden pastoral eragileak. Horra hor beti gure gizarteak erdeinatzen eta baztertzen dituen ondoan dagoen eta egongo den Elizaren beste ezaugarri bat.

MANUEL URIBE SAN MIGUEL
Arrasate

Presoen alde,
kristauok Estibalitzeko
Santutegian

Preso guztien alde: horixe izan da Estibalitzeko Santutegian egin den bilkurarako deialdiaren helburua. Igandean, apirilaren leian, Kristau Elkarte Herritarak eta Euskal Herriko Apaizen Koordinakundeak egin duten deialdiaren bidez, preso, erbesteratu, exiliatu eta errefuxiatu guztiei eta senideei elkartasuna adierazteko eta eurak dauzkaten eskubideei eusteko asmoa plazaratu nahi dute.

Ikusita preso guztiek, sozialek eta politikoei, egoera lazgarria bizi dutela bai Espainiako eta bai Frantziako kartzeletan ere, une honetan jasaten ari diren legez kanpoko jardueri eta tratatu txarrei buruzko salaketa egin dute ekitaldi honetan, otoitz eta hausnarketarako bildu diren herritar guztiei. Aldi berean, elkartasuna luzatzen die baita ere euren senitartekoei eta lagunei, behin eta berriz hara eta honako ibilaldi astunak eta luzeak egitera behartuta baitaude euskal presoekin hartua den zigorpolitikagatik.

Bestalde, askatasuna eta amnistia aldarrikatu zuen Huraren jarraitzaileak izanik hemen bildutakoak, hona hemen, horren haririk, adierazten duten eskaera: preso guztiek duintasuneko tratua jaso dezatela eta eurekin, gutxienez, legeak eskatzen duena bete dadila. Eta aurrerantzean, gizabanako eta gizartearen eskubideak zanpatuta dauden heinean, bide beretik jarraitzeko asmoa eta konpromisoa adierazi dute bertan bilduak, justizian oinarritutako bakea Euskal Herrian lortu arte.

Estibalitzen, 2001eko apirilaren leian

EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTE
HERRITARRAK
APAIZEN KOORDINAKUNDEA

Gaztetxea?

Azken egunotan, denok konturatuko Aginen bezala, herrian gaztetxearen inguruko eztabaida piztu da. Hau da Atxabalako ezker abertzaleko gazteok egin nahi dugun hausnarketa:

Zer da gaztetxea? Negozio bihurtu den taberna soil bat? Balore kontsumista, insolidario, individualista pasiboak... bultzatzen dituen gunea? Ez!

Gune horrek gazteok eta euskal gizarteak pairatzen dituen problematika eta beharrei ere erantzun behar die: aisialdia, etxebizitza eskubidea, kultur zapalkuntza...

Badakigu eta txalotzekoa da egungo egoera aldatu nahian taldetxo batek gaztetxean egin duen lana. Hori da jarraitu beharreko bidea. Horregatik, gobernu batzordearen erabakia ez da oztopo izan behar aipatutako gaztetxe eredu aurrera eramateko.

Defenda dezagun gaztetxea. Eta ez taberna!

ARETXABALETAKO
EZKER ABERTZALEKO GAZTEAK
Aretxabaleta

Gaztetxea: eztabaida
eta hausnarketa
sakondu

Ez da gure asmoa komunikatu gerra bat hastea. Hala ere, asteburu honetan egin eta esan diren hainbat gauza isildu ere ezin ditugu egin. Eta bi adibide, behintzat, aipatu nahi genituzke.

Alde batetik, Udaletxea birritan papez eta pankartzat josita uztea. Uste dugu probokaziotzat hartzeko eskubidea badugula, batez ere, AGAK ez duenean inongo trabarik izan bere iritzia herrian zehar kaleratzeko.

Bestalde, guztiz onartezina deritzogu argudiorik ez dagoenean gezurrak erabiltzeari, eta horixe egin du AGAK zapa-tuan kaleratutako komunikatuan. Gezurra besterik ez baita, besteak beste, azken bost urteotan inongo kezarik ez dela egon esatea, Udalean kexa ugari jaso izan bai-

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



titugu, bai ahoz eta bai idatziz ere. Baina gainera, eta norbaitek zalantzak balitu, galde diezaiola bere buruari: "Baieztape hori egin ahal izateko, hitz egin al dute AGA-koek inguruko bizilagun guztiekin?"

Baina hasieran esan dugun bezala, ez da gure asmoa gerra bat hastea, arazoari konponbidea bilatzea baizik. Eta konpon-tze bidean, agenterik garrantzitsuenak gazteak direla uste dugu, eta beraz, egunotan hasi den eztabaida eta hausnarketa sakondu beharra dagoela.

Horrela, bada, Udalak orain arte erabili den lokala erabiltzen utziko dio AGAri, bate-tik, eztabaida hori aurrera eramateko toki bat izan dezaten, eta bestetik, antola ditzake-ten ekintzak aurrera eraman ditzaten. Dena den, eta hausnarketa hori burutzen den artean, behintzat, baldintza hauek bete beharko dituzte:

Tabernaren erabilera bertan behera uztea. Horrela, eta arazoaren iturburua alde batera utzirik, eztabaida askoz ere bare-agoa izan daiteke.

Gaueko 10etatik aurrera lokala ixtea. Aurrekoa kontuan izanik, ez dugu uste gaueko 10etatik aurrera lokal hori erabil-tzeko arrazoirik dagoenik.

Prozesu honetan, eta aurrerantzean ere, Udalarekin harremanak mantentzea. Elka-rrizketa eta negoziatioak kultura iraun-korra izan behar du, eta ez krisi uneetan bakarrik erabili behar diren hitz handi bezain hutsak.

Udala, beraz, proposamen honen aurre-an AGAren erantzunaren zain geratzen da. Besterik esan ezean, datorren astelehena arte, apirilak 9, luzatuko dugu itxoite epe hau. Ordutik aurrera, eta erantzunaren ara-bera, Udalak bere erabakiak hartuko ditu.

ARETXABALETAKO
UDAL GOBERNU BATZORDEA
Aretxabaleta

Aretxabaletako gaztetxe hau ixtearen alde!

Lehenik eta behin, autokritika bat egin. Nahiko nuke gaztetxea kritikatu eta berau aldatzeko ezer egin ez dugunoi. Aretxabaletako gaztetxeak herriko gazte guz-tioek ditugun arazoak landu beharko lituz-

ke: etxebizitzak gero eta garestiagoak, aisial-dia orokorrean kontsumismoaz loturik dago, drogek gero eta papel handiagoa dute eguneroko bizitzan...

Ikastaroek, liburutegiak, gazte asan-bladak... bete behar dute eguneroko gaz-tetxearen bizitza, eta ez taberna interes-a-tu batek. Lotsagarria iruditzen zait atera-tako kartela eta agiriak: lotsagarria ordutegia betetzen ez dela esatea, udala gezurtizat jotzea, erabakiaren pisu guztia alkateari botatzea... Gaur eguneko gazte-txea bultzatzea, gazteria kontsumismora, dependentziara eta miseriara bultzatzea da. Hau da, aurka egin beharrekoari atea zabaltzea. Horregatik, Aretxabaletak ez du behar horrelako gaztetxe interesaturik, eta gazteon arazoak landuko dituen gaztetxea sortzeko beharra daukagu. Benetan gazte-on alde borrokatuko duen gaztetxea: gure etxea!

U. AZKARATE
Aretxabaleta

Angiozarrek merezi du!

Angiozar ezagutzeko aukera izan genuen Joan den 23an. Bai eta lotsa pixka batez bada ere, ezagutzeko diogu, izan ere orain artean ez baikenuen paraje haietara joan beharrik eduki. Egia da, hala ere, Euskal Herriko txoko asko bezala, Bergarako auzo hori ez dela batere aitzakia txarra turismo pixka bat egiteko: mendi inguru zoraga-riak, etxe eta baserri ikusgarriak, eliza eta plaza dotorea, eta, nola ez ba, ostatu opa-roak.

Urtero ospatu ohi den Eskola Txikien Jaia, aurtengoan Angiozarren izango da, hurrengoan berriz, Ereñozun. Herri txiki egitura duten bi auzo hauek une honetan inoiz baino antzekotasun handiagoa daukate. Aipatu eta goraiatu litezkeen beste gauza askoren artean altxor bana daukate: eskola. Gainontzeko proiektu, asmo eta abarrez gain, auzoaren biziraupena ziur-tatzeko ezinbestekoa den eskola txikia.

Horrela, jaiaren aurkezpena gonbi-datuak izan ginen, bai gustura asko joan gu ere. Hantxe ginen arratsalde erdialde-rako. Autoa aparkatu, etxe inguruak ete mendi bazterrak begiratu eta, eskola begiz-tatu bezain laster, inolako abisurik gabe erauntsia bota zuen. Lasterka batean esko-

la ondoko pilotaleku estalian topatu genuen lehorpea, eta jai bera. Hortik aurrera ez genuen babes bila ibili beharrik izan, egu-raldia hobetzearekin batera Angiozarko anaitasun giroak irentsi egin gintuen, elkartasuna eta ilusioa nagusi den lekuan ez baita arrotz sentituko denik.

Guraso eta ez gurasoen artean antola-tutako antzerkitxoak ikusi genuen. Globo ikusgarrien gidaritzapean "Eskola Txikiak Bizirik - Herri Txikiak Bizirik" leloa zeruratu zuten, eta jarraian, ospakizuna alaituko duen abesti polita aurkeztu ziguten egile izan diren gazte eta ikasleek, koreografiaz horniturik. Bertako eskola gai zuten argazki zaharren erakusketa ikusi ostean, eguna amaitzeko, bertso afaria izan zen, trikitixa eta guzti. Gozatu ederra hartu zuten bertan bildutako aitona-amo-nak, guraso, auzotar, irakasle, gazte eta nes-ka-mutikoen ahosabai eta belarriek. Oihar-tzun txikia, baina xarma handia.

Herri txikietako, auzotako pertsonen arteko hurbiltasuna eta adin desberdine-koen arteko elkarlana dira giza baloreen transmisiorako tresnarik egokiena, garai bateko auzolanaren lekuko. Beste neurri batzuetako elkargune, ikastexa eta giro-tan nekezago topatuko diren balioak, ala-jaina! Naturaltasun horrek egiten du Esko-la Txikia berezi, eta horregatik, tamaina txikiko proiektu garrantzitsu hauek ondo zaintzea merezi du. Eskola eta herria uztar-turik, elkarren beharrean baitaude, Angio-zarren bezala. Eredugarria!

Ekainaren 10ean jende asko izango da, gu joan den egunean bezala, Angiozar eta Eskola Txikien aberastasunaren eraginez indarberrituta etxera itzuliko dena.

JOSEBA IURRAMENDI ETA
ANDONI LIZEAGA
EREÑOZUKO TXIRRIETA ESKOLAKO
GURASOAK
Angiozar

Adi irakurle!

Datorren egubakoitzean ez da *Goienka-riarrik* argitaratuko, hortaz ez duzue ohi-ko moduan zuen etxeetan jasoko. Aste San-tuko oporren ostean, apirilaren 20an, berriz izango gaituzue zuekin. Bitartean, ondo pasa jai egunak.

Gora eta Behera

DIEGO GARTZIA



Kirolari ereduga-
rria eta pertsona
apala, azkarregi
joan zaigu, baina
asko erakutsi digu.

Bere heriotza izugarritzko ezbeharra izan arren, Martin Fizek esan zuen moduan, hil zitekeen modurik onenean joan zaigu.

EUROLIGA



Jose Manuel
Meirim epaile
portugaldarrak
hartutako eraba-
kia, alegia, AEKren

eta TAUren arteko lehen partidua errepikatzea, onartezina da. Jaioberri den lehiaketa batek ezin du onartu tamaina horretako hanka-sartzea.

Lehiaketa bera,
saskibaloia eta
kirola galtzen
ateratzen dira.



IÑAKI
UGARTEBURU
Bergarako
Udaleko kirol
teknikaria

Koplak

Txuletak

Abere gaiso denak
bildu ta birrindu,
behi belarra ukatu
eta okelaz gizendu.

Janari kutsatuak
baserrira saldu,
gizona lehendik zoro
orain behiak zoratu.

Orain konpondu nahian
horren ondorioa,
hezur gabe jan behar
ei da okelia.

Andra jakintsu batek
honela esan du,
haragizkoaren partez
oilo salda hartu.

Hezur gabe txuletak
sagardotegian,
itxura galtzen ei du
hezurra kentzian.

Gauza horiek ez ditu ba
Agarre kezkatzen,
lehenago ere ez nuen
hezurrik jaten.

ANDRES GABILONDO "AGARRE"

Egunkarietatik jasoa

Euskarazko toki-komunikabideen errorrak

(...) Euskara Biziberritzeko Plan Nagu-sian jasota dagoenez, tokian tokiko telebis-ten etorrera "aparteko aukera izango da eus-kararentzat". Tokian tokiko telebistak eto-

rri etorri dira eta berriak ere etorriko dira, gero eta pila handiagoetan, gainera; eta ueña iritsi zaigu honen inguruan eman beharre-ko erantzuna ematen hasteko. Ez gaude zain egoteko moduan.

Iritsi zaigu toki-komunikabideen ingu-ruko ekimen sendo eta ausartago bati eki-teko ueña. Eginkizun dugu oraindik arlo honetako lanik behinenetako bat: euska-

razko toki-komunikabideak bultzatzen ari diren eragile sozialen eta herri-erakundeen artean arloa sustatzeko estrategia bateratu bat diseinatzea.

Baina, halakorik ez dagoen bitartean ere bakoitza bere erronkei aurre egin beharre-an gara. (...):

ESTEPAN PLAZAOLA Goienako lehendakaria
EUSKALDUNON EGUNKARIA 2001/03/30

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA:
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain
SAILETAKO ARDURADUNAK
Edu Mendibil (Kirola,
Non Zer), Aintzane Irizar
(Berri-Zakua),
Goio Arana (Diseinua),
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Nerea
Zallo, Mireia Larrañaga,
Natali Martinez
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Aitziber Langaran
MAKETAZIOA
Goio Arana, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate, Gari Bragado

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

ABK taldeko kidea da. Honek Euskal Herria autodeterminatu dadin pausoak ematen dihardu, batez ere desobedientzia zibilaren alorrean. Estatu Espainiarraren estrategiak arrisku bizian jartzzen baditu ere, lanean jarraitzeko apustua egin dute, eta egunotan Aretxabaletako eta Arrasateko udaletan NANaren erabileraren aurkako mozio bana tramitatzen dihardute.

IKER BARANDIARAN

Nola jaio zen Autodeterminazioaren Biltzarra?

Lehendik autodeterminazioaren alde lanean zebiltzan zenbait taldek eratu zuten. Helburua, gizarte mugimendu anitz bat, plurala, sortzea da, baina autodeterminazioa noiz helduko den itxaron beharrean, horren aldeko pausoak egiten dituen. Tresna eraginkorren artean, desobedientzia zibila azpimarratuko genuke, elkarrizketa bideak, foro berriak, Lizarra-Garaziren gehien-go berreskuratzeari gain. Buru-belarri gaude desobedientzia zibilarekin. Gure ustez, indarkeriaren bidea eta gurea, desobedientzia zibilarena, ez dira inola ere konpatibleak, tangentialak baizik. Ez dugu justizia espainiarrean inola ere sinisten, baina denborak arrazoiak emango digu. Gero eta antidemokratiagoa den estatu baten atzaparretan jausten ari da jende ugari.

Zertan datza zehazki udaletxe batzuetan aurkezten ari zaren mozioa?

Eskatzen duguna NANA udaletxeetan ezertarako beharrezkoa ez izatea da. Berau, inposatutako karnet bat dela uste dugu, guretzako iraingarria dena, zelanbait gu espainol izendatzen gaituelako. NAN horri legeak agintzen duena baino erabilera gehiago ematen diogu, laster komunera joateko ere erabiltzen hasiko gara eta. NANaren inguruko proiektu baten barruan, eta batez ere desobedientzia zibilarekin lotuta, honi ahal den erabilpen gutxien ematea erabaki genuen. Samurrena udaletxeetan hastea zela erabaki genuen, edozein eskari idatziz luzatzeko izen-abizenak eta NAN zenbakia eskatzen dutelako, legez derrigorrezkoa izan gabe. Eskatzen duguna da instantzia eredu horiek (NAN zenbakia eskatzen dutenak) aldatzea. Ez dauka hauteskundeekin zerikusirik, baina nolabaiteko nahastea sortu da, NANA derrigorrez erabili beharrekin.

Momentuz, kanpaina pilotoa da, Donostian, Arrasaten eta Aretxabaletan egiten ari garena. Hala ere, asmoa dago, laster beste herri batzuetara zabaltzeko. Ea zentzu honetan dinamika bat sortzeko gai garen.

Bitxia da kanpaina pilotoa bailara honetan hastea, eta era berean Bruselara eramandako NAN dezente hementxoak izatea ere...

Bailaran ez dago ABK talderik, eta kide propio bezala ni bakarrik nago, baina inguru honetan jendea oso kontziente da herritarren parte-hartzea beharrezkoa dela. Energia eta gogo handia dago eta ea gorpuzten den. Beste gizarte mugimenduen implikazioa bilatzen gabilta, eta badakigu asko gurekin ados daudela.

Hauteskundeetan ENA erabiltzea



IKER BARANDIARAN

Xabier Sarasua

AUTODETERMINAZIOAREN BILTZARRAK-eko KIDEA

“Ezin gara politikoei begira egon, noizean behin botoa ematearekin nahiko dugula pentsatuz”

NORTASUN AGIRI NAZIONALA

“NAN horri legeak agintzen duena baino erabilera handiagoa ematen diogu, laster komunera joateko ere erabiliko dugu”

EUSKAL AGIRI NAZIONALA

“Interesgarriena, Udalbiltzak euskal nortasuna adierazten duen karnet ofiziala ateratzea da. Borondatezkoa izango dena, gura duenarentzako, ez inposaketa, bestearen moduan”

galarazi dutela eta, zein jarrera hartu behar duzue horren aurrean?

Guk hauteskunde hauetatik urrunago joan nahi dugu; ikur inposatzaile denak baztertzeko lortzea. Interesgarriena, Udalbiltzak euskal nortasuna adierazten duen karnet ofiziala ateratzea da. Borondatezkoa izango dena, gura duenarentzako, ez inposaketa bat, bestearen moduan.

Hauteskundeekin gauzak oso blokeatuta daude, gainera urteetan egon diren hauteskunde arriskutsuenak izan daitez-

ke; Mayor Oreja lehendakari bihurtuko balitz, izugarritzko atzerapausoa emango litzatekeelako. Guk ere nolabait kanpaina horretan parte hartu nahi dugu abertzaleei esanez abertzaleei botoa emateko, eta hauek ez zigortzeko, nahiz eta merezi izan, norberaren burua zigortzea izango delako. Lizarra-Garaziren garaian auke- oso onak galdu dira. Lehenik eta behin, ETari eta Espainiar gobernari egotzen diegu, baina baita alderdiei, ez zutelako behar besteko ahaleginik egin horrek

aurrera jarraitzeko, eta ez zutelako gizarteratzeko behar besteko lanik egin. Hala ere boto abertzalea eskatzen dugu.

Zein beste ekimen bultzatzen diharduzue?

Udaletxeei eskaera hau luzatzea, Udalbiltzari berari Euskal Nortasun Agiri nazionala eskatzea, Bai Euskal Herriari sinadurak, duela gutxi Bruselara eramandako NANak, Aste Santu ondoren errepikatzeko asmoa duguna, ahal izanez gero jende ezagunak ere parte hartuta. Azken baten, desobedientzia zibileko maila eta inplikazio desberdineko ekintzen bitartez, eztabaida eta eraldaketa bultzatu nahi dugu.

Azken baten, hori da ABKren helburu nagusia?

Guk, ABKtik ikusten dugu, herri honek Estatuarekin daukan gatazkan, herritarrek bere gain hartu behar dutela erantzukizuna gauzak aldatzeko. Ezin gara politikoei begira egon, noizean behin botoa eman eta horrekin nahiko dugula pentsatuz. Ados ez gauden inposaketei aurre egin behar zaiela uste dugu, baina berau egiteko modu egokiak aurkitu behar dira. Eraginkorrak, baina bestetik zilegiak direnak, bidezkoak. Biolentziarik gabeko bideak oso eraginkorrak izan daitezke, onartzen ez ditugun indarkeriaren bideak baino askoz gehiago. Herritarrek desobedientzia zibileko ohitura batzuk hartzea inposaketei aurre egiteko eta presio bide horren bitartez gauzak aldatzea. Jarrera pertsonal bat da, baina hau jende askok bultzatzen badu, kriston indarra egin daiteke. Hor dago intsumisioaren adibidea. Inork ez zuen pentsatuko presio bide horretatik halako emaitzarik lortuko zenik. Gero eta jende gehiago esparru desberdinetan inplikatzeko dabil, eta gehiengo handi bat ados dago hau eraman beharreko bidea dela.

Jo dezagun kasu praktikoetara. Nortasun agiririk erabili barik, arazoak izan ditzakegu?

Ederto moldatu zaitezke. Batetik, ez da derrigorrezkoa karneta beti aldean eramatea. Beste bide batzuen bitartez identifikatu zaitezke; edozein agiri ofizialek balio dezake, zure argazkia eta izena agertzen badira. Adibidez, igerilekuko edo liburutegiko karneta, baita gidatzeko baimena ere. Bestela, segurtasun osoa eduki nahi izanez gero, ez da ezer kostatzen udaletxean NANAren fotokopia bat konpultsatzea, eta horrek balio berbera dauka. Adibidez, kontrol baten arazo bat saihesteko edo, badaezpada edukitzeko. Azken batean, zuk desobedientzia ekintza bat egin duzu, eta horrek bere eragina dauka.

Matrikulen inguruan ere lanean zabilzate, eta nahasmena omen dago...

Askok uste dute beharrezkoa dela matrikula zaharrak aldatu eta Espainiako ikurra jartzea. Hau estrategia bat da, Ipar Euskal Herriaren multaren bat jarri zuten, eta jendea asko beldurtu da. Legeak ez du hala agintzen, baina zurrumurrua hedatu egin da, bereziki Donostia aldean. Guk horren aldean, euskaldun sentitzen denak ikurren bat eraman dezala proposatzen dugu; EH, EUS edo NA, berdin da.

Nola ikusten duzu autodeterminazioaren aldeko bidea?

Euskal Herri aske eta burujabe bat nahi badugu, batez ere Euskal Herri desberdin bat nahi dugulako da. Gehiengo batek arlo desberdinetan beste parametro berri batzuk izango ditu; ekologian, arlo sozialean... Prozesu eraikitzaile horretan Euskal Herriko gizarte mugimenduek oinarria izan behar dute. Zertarako nahi dugu burujabe izatea, Estatu Espainiar edo Frantsesaren antzeko zerbitu izateko? Noski ezetz, eta horretarako lan asko egin beharra dago. Horretatik da oso inportantea zein bide erabili behar ditugun autodeterminazioa lortzeko.

Txakur leren lasterketa Gorlan

Domeka goizean, erlojuz kontrako proban, 45 partaide inguru izango dira

Domekan, goizeko 11etatik aurrera, txakur leren lasterketa jokatu dute Gorlan. Bergarako Mushing elkarteak antolatuta, 45 partaide inguru izango dira, tartean Goyo del Real madrildarra (hiru aldiz garaile Gorlako proban) edo Jesus Raigoso "Lobito" nafarra, iazko irabazlea. Partaideek Gorlako kantinatik Trekutzera joan-etorria egin beharko dute domekan, erlojuaren kontrako proban. Ibilbideak 9,5 kilometro luzera dauka.

Aurtengoa lasterketaren VIII. ekitaldia izango da. Julen Narbaiza antolatzaileetako baten iritziz, "urtetik urtera probak erantzun hobea jaso du, bai ikusleen aldetik, baita partaidetzari dagokionez. Aurten, esaterako, Frantziatik zortzi bat lagun etorriko dira, Galiziatik beste zazpi... Horrek proba honen garrantzia erakusten du".

Txakur kopuruaren arabera, hiru kategoria bereiztuko dituzte: A kategorian zortzi txakurrekin arituko direnak ibiliko dira, B kategorian 6 txakurrekoak, eta azkenik, C kategorian, 4 txakurrez tiratutako leretan



Partaideek hamar kilometro inguruko ibilbidea bete beharko dute domekan.

ibiliko direnak. Pulka kategorian (bizikletarekin eta txakurrarekin) eta *cani-cross* (txakurren atzetik korrika egiten dutenak) izeneko modalitatean ere arituko dira hainbat. Debagoieneko bi partaide egongo dira: Iña-

ki Muñoz oñatiarra eta Itoiz Armendariz atxabaltarra.

HEGAZTIEN ERAKUSTALDIA

Domekan 300 bat txakur bilduko dira Gorlan, *alaskanoak* gehienak. Era berean, *huskyak*,

groenlandiarrak edo *samoyedak* ere izango dira. Sari berezia emango diote txakur talderik politena aurkezten duenari. Bestalde, eguerdi partean hegaztien erakustaldia egingo dute kantina inguruan.

Kirolabur

ESKUBALOIA/OÑATI

Oñatiko senior mutilen eskubaloi taldeak lehen maila nazionalera igotzeko promozioa jokatu du, zapatuan Zubikoa kiroldegian jokatuako partiduan UPV-EHU taldeari nagusitu ondoren. Liga amaitzeko jardunaldi bat falta da oraindik baina Txus Aranzburuk zuzentzen duen taldeak sailkapeneko bigarren tokiari zuzentuta dauka. Taldearen sorreraren zilarrezko ezteietan, lehen nazionalera igotzeko promozioa jokatzea lortu duen Debagoieneko lehen taldea izan da Aloña.

PILOTA/ARRASATE

Eskez banakako txapelketaren barruan, Nagore eta Olaizola II.a aurrez aurre izango dira zapatuan, hilak 7, Arrasateko Urkape pilotalekuan. Jaialdi berean, Unanue-Ruiz eta Olaizola-Errandonea bikoteen arteko partidua izango da. Hirugarren partidua zehazteke dago oraindik. Zapatuko pilota jaialdia 17:00etan hasiko da.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Realak urtero antolatzen duen Regazte mailako txapelketaren barruan hainbat partidu jokatu dituzte Debagoiengan: datorren egubakoitzean, apirilaren 13an, Bartzelonak Milango Interren kontra jokatu du Arrasaten, apirilaren 14an Bartzelona eta Athletic taldeen arteko partidua izango da Bergarako Agorrosin futbol zelaian, eta domekan, hilak 15, Real Madril eta Realak indarrak neuruko dituzte Azkoagainen, Oñatin. Hiru partidua arratsaldeko 5etan jokatu dituzte.

SASKIBALOIA/ARRASATE

Kenci Arrasate saskibaloi taldeak Donostiako Cafes Aitona Askatuak taldearen aurka jokatu du egubakoitzean, hilak 6, Iru-ripen kiroldegian, 18:30etan. Arrasate taldeak azken hiru partidua galdu ditu. Azken jardunaldian, 88-79 emaitzarekin galdu zuten arrasatearrek Gasteluzen. Lau jardunaldi falta dira liga amaitzeko eta gaur, egubakoitzean, ez dute aurkari erraza izango Lander Errastiren mutilek, nahiz eta Askatuakeko bigarren taldea izan Arrasatera etorriko dena.

FUTBOLA/BERGARA

Hirugarren mailako Bergarako futbol taldeak Soduperen aurka jokatu du zapatuan, hilak 7, Agorrosingo futbol zelaian, 17:00etan. Bergarak azken zazpi partidua galdu ditu eta jaitsiera postuetan dago, sailkapeneko 19. tokian, 32 punturekin. Liga amaitzeko sei jardunaldi falta diren arren, Juanina Garai arrasatearrek zuzentzen duen taldeak behar bezain moduan lortzea. Sodupe 17. tokian dago, 30 punturekin.

EDIKTOA

LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 2. EPAITEGIA / ARIZNOA, 1 BERGARA (GIPUZKOA)
Tel.: 943 76 58 41 / 76 44 54 • Faxa: 943-765244
Identifikazio Orokorreko Zenbakia: 20.03.2-00/000593 • Prozedura: 92/00- munta txikiko judizioa.
Gaia: munta txikiko demanda, gauza komuna banatzeko akzioa
Demandatzailea: Monica Joquin Cabo andrea
Prokuradorea: Miguel Angel Oteiza Iso jauna
Demandaturia: Guillermo Carmona Romero
Prokuradore Jaun-anderea

Nik, ASCENSION ROMERO LINARES andreak, BERGARAKO (GIPUZKOA) lehen auzialdiko 2. epaitegiko idazkariak

JAKINARAZTEN DUT: Epaitegi hau, munta txikiko judiziorako jardunbidea (92/00 zenbakia duena) tramitatzeko ari dela MONICA JOQUIN CABOren ekimenez, GUILLERMO CARMONA ROMEROren aurka, eta gaurko egunez erabaki dela enkante publikoan ateratzea, lehenengo aldiz eta 30 eguneko epearekin, ondoren zehaztuko diren ondasunak. Halaber, jakinarazten da, erremate-ekitaldia, MAIATZaren 10ean izango dela goizeko 10:00etan Epaitegi honetako entzunaldi-aretoan, ondorengo baldintzekin:

LEHENA: ez da onartuko adierazitako tipoa baino txikiagoko posturirik.

BIGARRENA: enkantean parte hartu nahi dutenek, Epaitegi honen Banco de Bilbao Vizcayan duen kontuan (zenbakia: 1873/0000/1500/9200) diru-kopuru bat kontsignatu beharko dute. Kopuru hori, gutxienez, tipozat hartzen den ondasunen balioaren %20a bestekoa izan beharko da, eta kontsignazioa egitean, jardunbidearen zenbakia eta urtea adierazi beharko da, ezinbestez, onartuak izateko. Era berean, ez da onartuko eskudiru edo txerkerik entregatzerik.

Enkantean adjudikazio-hartzaile gertatzen denak hamabost eguneko epea izango du gehienez diferentzia entregatzeko, erremate-egunetik kontatzen hasita.

Enkantearen tipoa bete duten posturagileek gordailututako diruak erreserbatu egingo dira, lehenengo adjudikazio-hartzaileak bere obligazioa beteko ez balu errematea hurrengo dauden alde onartu ahal izateko, beti ere, egin dituzten posturen zenbatekoen arabera ordenan.

Etxebizitzaren jabeek ere parte hartu ahal izango dute enkantean eta egiten diren posturak hobetzen saiatu, horretarako aurrez diru-gordailurik egin beharrik gabe.

LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 2. EPAITEGIA



HIRUGARRENA: Enkantea iragartzen denetik gauzatzen den egunerako arte, egin ahal izango dira idatzizko posturak plegu itxian, beti ere, gordailatu beharreko dirua gordailatu ondoren.

Bai autoak eta baita jabetza tituluen ordeko erregistro ziurtagiriak Epaitegi honetako idazkaritzan egongo dira, nahi dutenen esku; eta, horrenbestez, ulertuko da lizitatzailerek nahikotzat jotzen dutela dagoen titulazioa eta aurretiko kargak enkantean lortzen den diruarekin estaliko direla.

Halabarrez, edo Epaitegi honekin zer ikusirik ez duen arrazoi-aren bategatik enkantea izendatutako egun eta orduan egiterik ez balego, hurrengo lan-egunean izango da, larunbatetan izan ezik.

LAUGARRENA: Lortutako diruarekin, ondasunak Arrasateko Udalarekin duen zorra (32.332 pta.koa) eta etxebizitzaren gain leudeken gainontzekoak ordainduko dira, aurrez kargak eta zamak kitatu ondoren.

ENKANTERA ATERATZEN DIREN ONDASUNAK ETA BEREN BALIOA

Arrasateko 5.685. finka, Artxiboko 557 tomoan inskribatua, 345 liburuan, 137. folioan, era honetan deskribatua:

HIRI FINKA.- HAMAIKAGARREN ZENBAKIA. Santa Teresa Etxe-multzoko bi zenbakiko eraikinean, eraikinaren ekialdean, kokatutako etxebizitza, eskaileretan gora joanda, bosgarren pisuan, ezker aldean dagoena. Eraikitako azalera: HIRUROGEITA BEDE-RATZI METRO ETA HOGEITA BEDERATZI DEZIMETRO KARRATU.

BALORAZIOA: 19.401.200 PTA.


BERGARAN (GIPUZKOA) eman dut bi mila eta bateko martxoaren zazpian.

IDAZKARIAK

Podiuma

Patxi Gorosabel | ARRASATEKO ERRUGBI TALDEKOA |

Arrasateko Errugbi Taldeak Euskal Ligari amaiera eman zion zapatuan, Garagartzan, Gaztediren aurka jokaturako partidurekin. Arrasatearek 6-27ko emaitzarekin galdu zuten gasteiztarren aurka. Azkenean, Arrasateko Errugbi Taldea sailkapeneko bosgarren tokian geratu da (10 talde dira denera). Joseba Maidaganekin batera entrenatzaile lanak egiteaz gain, Patxi Gorosabel beteranoa (41 urte) jokatzen ibili da amaitutako ligan.



Gorosabelek 27 urte daramatza errugbian jokatzen. ARRASATE PRESS

“Harrobiko jokalaririk askok 18 urterekin-edo lagatzen dute errugbia, eta hutsune hori betetzea oso zaila da”

“Aspaldi honetan askotan salatu dugu Garagartzako zelaia oso egoera txarrean dagoela, baina ez digute soluziorik ematen”

eta kopuru eskasa da hori. Onena 35 fitxa inguru izatea da. Partiduetan jokalaririk inportanteak falta izan direnean taldeak asko igarri du. Dena dela, txapelketa txukuna egin dugu, nahiz eta Atl. San Sebastian txapelkunarengandik puntu askotara geratu.

Liga bukatuta, orain zer?

Errugbi-7ko txapelke-

tak jokatuko ditugu. Errugbian 15 jokalaririk aritzen dira zelaian, eta 7 jokalarirekin bakarrik jokatzea fisikoki oso esijentea da. 14 minutuko partidua izaten dira, erritmo oso bizikoak. Hemendik ekainera horrelako hainbat txapelketa izango ditugu eta ekaineko lehen astebukaeran, Santanderreko Independiente taldea, Iparraldekoen bat,

Portugaleko beste bat eta inguruko taldeak ekarri nahi ditugu Arrasatera, dirua lortzeko urtero egiten dugun Garagardo Festarekin bat eginez.

Bestalde, taldean baduzue erreleborik?

Harrobia lantzen saiatzen gara eta infantil, kadete eta gazteen taldeak badiugu. Gertatzen dena zera da: jokalaririk askok 18 urterekin-edo errugbia lagatzen dutela, eta aurretik egindako lan horrek ez duela emaitzarik ematen senior taldean. Aurten ere gauza bera gertatu zaigu: gazte taldeetik 11 jokalaririk ziren igotzeko eta bakarra igo da. Horrelakoetan zulo moduko bat gertatzen da eta zaila izaten da hutsune hori betetzea.

Zer esango zenieke errugbia astakiloen kirola dela diotenei?

Arrazoi apur bat ez zaie falta, kontakto handiko kirola delako. Dena dela, beste kirol guztietan gertatzen ez den gauza bat gertatzen da errugbiarekin: partidu amaieran zelaian aurkari izan dugun taldeko jokalariekin eta epailearekin ere biltzen gara, elkarrekin garagardo batzuk hartzeko. Partiduko ika-mikak alde batera lagata, giro ona egoten da.

Bukatzeke, zuen zelaia egoerarekin kexatu izan zarete.

Askotan salatu dugu zelaia oso egoera txarrean dagoela baina ez digute inolako soluziorik eman. Zapatuan jokatutako partiduan ere belarrak 40 zentimetroko altuera zeukan eta loreak ere baziren. Uste dugu Arrasateko Udalaririk dagokiola hori konpontzea.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

Iñaki Eguren

Harrijasotzailea



Pedro Salegi, Iñaki Eguren eta Luis Atxega Azpeitiko zezen plazan.

Gazte mailan Euskal Herriko hiru txapel


lortu zituen 1978an eta 1979an.

20 urterekin utzi zion harria jasotzeari

Hamabost urterekin hasi zen Iñaki Eguren harria jasotzen, lagunekin, Osintxuko elizpean. Han harritzko hanka bat zuen egurrezko banku bat zegoen, eta bera baino zaharragoak zirenek lortzen ez zutena lortu zuen Iñakik, harri hura jasotzea alegia. Handik lasterrera, Uberako San Paulo jaietan, txapelketa antolatu zuten, eta Jesus Izuetarekin birritan entrenatu ondoren, parte hartzeko izena eman zuen Iñakik. 75 kiloko harria altxatu behar izan zuen eta bigarren sailkatu zen. Iñakik gogoratzen duenez, “Pedro Salegik begia bota zidan orduan, eta handik egun gutxira eskola irteeran neukan zai. Berarekin entrenatzen hasteko proposatu zidan eta, amari grazia handirik egin ez zion arren, orduan hasi nintzen serioago entrenatzen”. 15 urtetik 20 urtera bitartean gogor entrenatu zen; “harria jasotzen ikasi nuen lehenengo, eta gero markak hobetzen ahalegindu nintzen. Entrenamenduetara gutxitan egiten nuen kale”.

1978an eta 79an gazte mailan Euskal Herriko hiru txapel eskuratu zituen, Bergaran eta Azpeitian. Bere markarik onenetako bat Azpeitiko zezen plazan lortu zuen, 81ean. 162,5 kiloko harria 90 aldiz altxatu zuen, 10 minutuko hiru txandatan, Endañeta VI.aren aurka. Handik gutxira harrijasotzea uztea erabaki zuen. Hala ere, esperientzia aberasgarritzat dauka harri artean izandakoa; “sakarifikatzen, gorputza zaintzen eta diziplina zer den ikasi nuen”. Gaur egun Bergarako Euskadiko Kutxako bulegoko zuzendaria da. Harri jasotzeari buruz zera dio; “herri kirol guztiekin bezala, behera egin du, beste kirol batzuk erakargarriagoak direlako gaurko gazteentzat”. /E.M.

“Hamabost urte nituela Pedro Salegik begia bota zidan Uberako txapelketa batean, eta berarekin harria jasotzen ikasteko proposatu zidan”



Iñaki Eguren • Osintxu • 1961



Nire Pronostikoa

JOKIN ETXANIZ / Pilotaria

Eskuz banakako txapelketa-
ren barruan partidu
ikusgarria izan daiteke
Arrasatekoa, Olaizola eta
Nagoreren artekoa. Nagore
hobeto moldatzen da lau
terdian eta Haimar Olaizola
eskuetatik errekerperatzen
bada partidua irabaziko duela
uste dut. Beste partiduan ere

gauzak estu egongo dira,
baina Goñiren alde egingo
dut. Futbolearen berriz, Realak
nahi eta nahi ez irabazi behar
dio Oviedori, jaitsiera postue-
tatik ateratzeko. Athleticek
ere ez du partidu erraza
izango Vigon, Celtakoak sasoi
betean direlako. Hala ere,
kinielari, 2koa jarriko nuke.

Oraingo astebukaerako partidua

A/	Olaizola	22	Nagore	16
B/	Goñi III	22	Rai	18
C/	Celta	1	Athletic	2
D/	Reala	3	Oviedo	1

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE



UNITED COLORS
OF BENETTON.

Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko apirilaren 6a

Kultura
eta
Aisialdia



Apirilaren
6tik 13ra

Txikiak eta azkarrak

Ordu asko eskatzen ditu irradi-gidatua etxean izan eta txapelketa baterako prestatzeak. Diru aldetik kostuak asko murriztu badira ere, ia hilabetero autoa hobetzeko piezak ateratzen dira merkatura eta puntan egon gura izanez gero diru mordoska bat behar da. Dirua baino, hala ere, denbora da auto hauek eskatzen dutena eta asko mimatu behar izaten dira gero lasterketan postu onak lortzeko. Ez dago aldaketa handirik formula 1 izenarekin ezagutzen ditugun autoekin. Azelerazioak, lastertasuna...

dena da antzerakoa, baina lasterketa bukatzeaz bat irradi-gidatuak boxex-etara eraman beharrean kaxa batean gordetzen dira eta hurrengo egunetan tailer mekanikoa etxean bertan izaten da beste ordu pila bat eskaini eta autoa puntuan jartzeko. Segurtasuna ere, beraz, zaindu egin behar. Gertatu da, interferentziak direla eta, auto hauek norabidea galdu eta jendearte-ra joatea, hankaren bat edo beste harrapatuz gero golpea ez da makala izaten eta horrexegatik, entrenatzeko ere leku egokiak behar dira. Gure

bailaran ere badago esperantza horrelakorik izateko. Arrasateko polikiroldegi berrian "pilotu" hauek aintzat hartuko al dituzte... Ez da diru asko mugitzen eta kirola eta zaletasuna den neurrian etxe babesleak ere ez dira asko. Hala ere, irradi-gidatuek izango dute merezi duten entzutea eta babesleak ere neurri horretan egongo dira. Kirol bitxia, espektakularra, lastertasun handikoa, adrenalina igotzen duten horietakoa, eta batez ere, gasolina usaina maite dutenentzako oso erakargarria. /14

Irrati-gidatuak



Jolasa baino gehiago, gasolina usaina

IRRATI-GIDATUAK EZ DUTE ORAINDIK ENTZUTE HANDIA, HALA ERE, BAILARAN BADUGU JENDEA OSO ZALE DENA

A Esan dagigun ez dela kirolik ezagunenetakoa, hala ere, gure bailaran badira txapelketa bitxi hori oso gertutik jarraitzen dutenak. Horietako lau lagunekin egon gara, eta euren esperientziak kontatu dizkigute. Bujia, autoa abiarazteko mahaia, ihes-hodia, zentrimetro kubikoak, gasolina... kaleko edozein autok duen besteko hiztegia, tamainu txikia izan arren, lastertasun handian dabiltzan irrati-gidatuendako.

Askotan, zaletasun moduan hasten da horrelako auto bat gidatzen. Gainera, gauregun, informatikak eta ingeniariak alde batera laga dituzte titanio eta karbonoa moduko material konplexuak, eta duralezko aleazioak, zycrala... eta antzeko plastikoekin oso egoki prestatu daiteke edozein auto. Zaleak txapelketa izaten du gustuko, eta txapelketa horietan zorrotzasunak agintzen du. Azterketa egin behar zaio autoari, behin txapelketetan parte hartu gura denean: pisatu, neurtu, gurpilak begiratu... Europako txapelketak urrun samar geratzen bazazkie ere, aurtan, estatu mailako txapelketetara joango dira, horrela, lagun artean ibiltzetik txapelketetara ere salto eginez.

Asko aurreratu da, bai mekanika aldetik eta bai bestela ere. Iturrospek esan digun moduan, "zirkuituak hobeto prestatuta daude, hala ere, gure bailaran ez daukagu entrenatzeko leku askorik... ea Arrasaten, polikiroldegiko lan berriak egiten direnean, aintzat hartzen gaituzten." Mekanikari dagokionez, 1-Formulako autoek duten prestazio berberak, edo batzuetan hobeak, dituzte auto txiki horiek. Lehen, zerotik 100erako azelerazioa hiru segundotan egiten bazuten ere, orain, Otik 100erako tartea 1,7 segundora pasa da, eta horiek beldurtzeko markak dira. Guk auto horiek probatzeko aukera ere izan dugu, eta esan daiteke esperientzia zaila izan dela horrelako artikulu baten azaltzeko.

Dena ez da lastertasun handiaren emozioa; irrati-gidatueta, autoa piezaz pieza muntatzetik hasten da prozesua, eta horrek zenbait kontzeptu barneratzea dakar: elektronika, elektrizitatea, mekanika, fisika... hori guztia lantzen da auto txikiak muntatzean, eta auto-arekiko atxikimendua lehenengo unetik lortzen da.

Pistakoa, lur-pistan ibiltzekoak, termikoak, elektrikoak... aukera zabala dago, hala ere, elkarrizketa honetan pistetan jarduten duten eta gasolinazko motorretan aditu diren bailarako lau lagunekin izan gara, lau profesionalekin.




J.M. Iturrospe/Bergara

Aspalditik dihardu Jose Manuelek irrati-gidatuekin: "Entrenatzeko lekua urrun samar dugu, denbora luzea eskatzen du hara eta hona ibiltzeak, eta horri aurretik 20 ordu inguruko lana gehituz gero autoari zirri batzuk egin eta txapelketetarako prestatzen-eta ... Askotan esaten digute jota gaudela horrenbeste ordu sartzeko. Kirol hau oraindik ere oso hedatua ez dagoen arren, jendea gerturatu ahala, esango nuke zaleak geroago eta gehiago direla. Autoak gasolinaz mugitzen direla ere ez daki jendeak, eta edozein animatuko nuke egunen baten horrelako lasterketaren bat ikustera.

Aritz Murgia/Arrasate

Hogeita bi urteko gaste honek motorra daukan edozer atsegin du, eta hain da hori horrela, Porsche autoaren motorrak ateratzen duen zarata CD baten daukala gordeta. Ingeniaritza ikasketak lanarekin tartekatzen ditu, eta argi dauka irrati-gidatuena zaletasun bat besterik ez dela. Hegazkin eta helikoptero bat ere badauzka, baina horiek ez ei ditu hain ondo menderatzen. Euskadiko eta Espainiako txapelketetan parte hartzen du, eta lorpen handiena Zaragozan egin zuen, zazpigarren postua lortu zuen-eta, nahiz eta aurtan motorra erre duen. Hemen-dik gutxira, Madrilen izango da.



Urtzi Zubiate/Arrasate

Urtzi eta Aritz adin berrekin hasi ziren kirol hori praktikatzan, eta 13 urterekin gasolinazko lehen autoak erosi zizkieten. Urtzik motorretan inguruko edozer atsegin du, baina kometekin ibiltzea ere izugarri gustatzen zaio. Gaur egun, Aritzen mekanikoa da, nahiz eta Urtzik ere autoa daukan. Txapelketetara elkarrekin joaten dira, eta kirol horretan argi dago mekanikoa gidaria bezain garrantzitsua dela. Lasterketetara ondo pasatzera joaten dira, irabaztea diru kontua da eta. Espainiako txapelketan lehiakortasun handia izaten dela esan digu Urtzik eta batzuetan joko zikina ere bai.

Gotzon del Teso/Antzuola

Jose Manuelek ere kutsitakotik dakite la aitortu digu Gotzon del Teso; hasieran, behintzat, Jose Manuelek bitartez ezagutu zuen gasolinazko mundu hau. Espainiako txapelketan, Zaragozan, 9. geratu zuen eta Nafarroan aurreko domekan irabazi egin zuen. Gustatuko litzateke entrenatzeko pistaren bat gertu izatea, baina horren faltan, ordenez gailuarekin entrenatzen da etxean bertan: "Joko simulatuak geroago eta hobeak dira, eta informatikak asko laguntzen du. Pantailak nahiz irudi erreala ematen du". Antzuolan ere egin ditu pare bat erakus-taldi, eta harrera ona izan du bietan ere.


Kronika | Fun Lovin' Criminals taldea Jam aretoan

Bihotz oneko kriminalak

Taldea: Fun Lovin' Criminals. Jatorria: New York. Musikoak: Huey (gitarra eta ahotsa), Fast (baxua, teklatuak, tronpeteta eta programazioak), Mackie (bateria). Kontzertuaren eguna: 2001-04-04. Lekua: Bergarako Jam aretoa. Iraupena: ordubete eta hiru ordu laurden. Sarrera: 2.800 pezeta. Ikusle kopurua: 800 lagun.

Diskotekako gorila, USAko marine, auzuneetako matoi... horiek guztiak izandakoa ei da Fun Lovin' Criminals taldeko lider Huey. Hori aipatzen dute, behintzat, hainbat komunikabidek gaur egungo Manhattaneko talderik ezagunenetakoa abeslariaren curriculumarekin erreparatzen dutenean. Eguazten gauean Jamen ikusitakoaren arabera, berriz, hainbesteko ez dela esango nuke. Makarra eta golfo ospea dute kriminal hauek, baina halako asko bezala, bihotz onekoak dira. Geurean, behintzat, jator eta apal agertu ziren: ikusleekin bat egin zuten, eta amaieran musuak eta garagardoak ere oparitu zizkieten aurreko lerroetakoei. Gustura aritu ziren, antza.

Fun Lovin' Criminals 1993an sortutako taldea da, eta lau disko ditu kaleratuak, azkena, orain dela hilabete kaleratua: *Loco*. 1999an argitaratu emandako *Mimosa* diskoak izan ezik, beste hiru diskoetako kantuak erreparatu zituzten eguaztenean. Gehienak azkeneko diskoak izan ziren, baina 100% *Colombian*-eko asko ere bai. Azken horretakoak eta estreinako diskoak (*Come find yourself*) zituzten ezagunenak Jamen bildutakoak, eta igarri zen, horietan egon ziren-eta gusturen, *Love unlimited* jo zutenean, esaterako. Baina, zer musika egiten du



Fast eta Huey eguaztenean Jamen. Aretoa leporain o bete zuten.

ENEKO AZKARATE

Fun Lovin' Criminals-ek? Hori galdera hori. Denetik, esango nuke: rapa, hip-hopa, rock-and-rolla, punka, soula, funka, bluesa, latindarra... Estilo horien guztien nahasketak-edo. Aniztasunean dago euren arrakastaren gakoa. Bestalde, hiru lagun nahikoa dira taulagaina betetzeko. Gainera, aitortu behar zaie aurrez grabatutako soinua eta sanplerrak erabiltzen maisuak direla.

Bortitz, gogor, ekin zioten emanaldiari, eta hala segitu zuten: orain, rock-and-rolla, hurrengo hip-hopa, gero funkya..., noizbehinka

punk-core pilulatxoak ere bai. Bala-dak, *Loco* diskoak, azkenerako laga zituzten, eta country doinuek ere izan zuten tokia.

Ordu eta laurden eskas egin ostean, erretiratu egin ziren, baina ikusleek eskatuta berriro irten ziren. Jende artetik porro bat hartu eta kaladaxo batzuk hartzeko astia ere izan zuten Hueyk. Orduan, bare-bare, eskaini zituzten baladok, eta txiskeroak ere piztu zituzten batzuek. Baladak ez dira oso ohikoak zuzeneko emanaldiak amaitzeko, eta horregatik, beharbada, gazi-gozo lagako zituzten asko. Ez da gure kasua.

Europar zehar dabilta amerikarrak taulaz taula, eta esaten duteenez, ozeanoaren bestaldean baino arrakasta handiagoaz. Bergaran, behintzat, leporaino bete zen aretoko ate handitik atera ziren. Sekulako garaipena, eguazten buruzuria zela kontuan izanda. Bezperan Bartzelonan egonak ziren, eta biharamunean Madrilan zuten hitzordua.

Azkenaldian goi mailako taldeak izan ditugu Jamen. Segi dezatela horrela.

ENEKO AZKARATE

Nire aukera

Gerardo Markuleta Idazle oñatiarra

Hitzeko zubia. Euskal poesia, 1990-2000 izeneko poesia liburua gomendatuko nioke poesia irakurtzen



hasi gura duen edozeini, horretarako oso aproposa da eta. 20 bat autoreren antologia da, oso merkea, 1.000 pezetan dago salgai. Oraingo euskal poesiaren erakusleihopolita da: Pako Aristi edo Rafael Arregititik hasita, Igor Estankona edo Urtzi Urrutikoe-txearaino agertzen dira. Oso liburu bitxia da, Galizian egina delako, euskaraz eta galizieraz.

Jakin badakit jendeak ez duela poesia irakurtzeko ohiturarik; baina, antologiak oso egokiak dira genero hori landu gura dutenendako, eta egile bat gutuko izanez gero, jarraipena egin diezaioke.

'HITZEKO ZUBIA...'

Askoren artean



A ponte das palabras
Poesía vasca 1990-2000
Hitzeko zubia
Euskal poesia 1990-2000

LEIRE KORTABARRIA

Kaleratu berriak

Iban Arantxabal


LIBURUA | Saiakera



SATORRAK BAINO LURPERAKO
Pedro Alberdik
Alberdania
233 orrialde

Pedro Alberdik 60ko eta 70eko kronika kulturala, politikoa eta sentimentala egin du liburuan. Ezer baino lehen, esan behar da kronika bizia dela, atzera-aurrera handiak dituela eta modu zirkularrean antolatua dagoela. ETaren hasiera, Burgosko epaiketa gertatu arte etab. agertzen dira. Bigarren maila baten, baita euskal kulturarena ere erdigunetzat Gabriel Arestiren garrantzia azpimarratuta geratzen dela. Orduko aipuak tartekatuz, Pedro Alberdik orduko eztabaidetan eta kezketan murgiltzen gaitu.

LIBURUA | Nobela



KORAPILOAK
Jasone Osoro
Elkarlanean
Orriak: 136

Hamazazpi ipuinen eta beste horrenbeste poemaz osatutako liburua da Korapiloak. Hain dira korapilatuak, irakurlearen esku geratzen direla protagonistaen arteko loturak argitzea eta maitasunaren puzzlea piezaz pieza osatzea. Egunerokotasunaren eta absurduaren artean mugitzen da Jasone Osoro liburu berri honetan, izenik ez duen hiri bateko jende anonimoaren geletan sartuz eta haien sekretuak argituz.

Eta zein den gorputzak lotzera bultzatzen gaituen zirraraxoa? Erantzuna, korapiloetan.

DISKOA | Trikitixa



TRIKI TA KE
Elkarlanean
13 kanta

Igor Telletxeak, Joseba San Sebastianek, Imanol Goikoetxeak, Iker Dorronsorok eta Anabel Arraizak osatzen dute Triki ta ke taldea. Urtarril-otsaila bitartean Donositako Elkarlanean estudioan grabatu zuten Jean Phocasekin.

Estilo bat baino gehiago topa ditza-kegun arren, trikiaren inguruan mugitzen den taldea da Triki ta ke. Azalak erakusten duen moduan, fresko-fresko dator 13 kantuko diskoa, eta udan entzungo dugu zenbait plaza-tan, azken baten, plaza taldea da eta.

Apirila: 6-13

Edu Mendibil / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: erredakzioa@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

Antzerkia

BERGARA

> **Zurriola** antzerki eskolako *Gure haurtzaroko lorategia* antzezlan egubakoitzean, hilak 6, Novedades aretoan, 22:30etan.

> **Los Bordinis** orekariak egubakoitzetik domekara Santa Marina ondoan, 20:30ean.

ELORRIO

> **Vaiven** taldearen *Sin vergüenzas* antzezlan egubakoitzean, apirilak 6, Arriola aretoan, 22:30etan.

Musika

ARRASATE

> **Arrasate Musikaleko** ikasleen kontzertua egubakoitzean, hilak 6, Arrasate Musikaleko aretoan, 18:30ean.

> **Eskizofrenia rock, Anger, Spank** eta **Degeneración** taldeak egubakoitzean, hilak 6, gaztetxean 21:00etan. Gaztetxearen 10. urteurrena.

> **Nuevo Catecismo Católico** eta **Astrozombies** taldeak zapatuan, hilak 7, gaztetxean, 22:00etan.

> **Biolin eta tronboi** kontzertua martitzenean, hilak 10, Arrasate Musikalen, 18:30ean.

> **Juan Falu** gitarra jolea martitzenean, hilak 10, Amaia antzokian, 20:00etan.

BERGARA

> **Ki-sap** eta **12 tribu** taldeak egubakoitzean, hilak 6, gaztetxean, 23:00etan.

> **Ignite, Snfu, Deviates, Venerea** eta **Powerhouse** zapatuan, hilak 7, Jam aretoan, 22:00etan.

> **Mariaren Lagundia Ikastolako abesbatzen** emanaldia astelehenean, hilak 9, Ikastolako elizan, 18:30ean.

OÑATI

> **Sara Van** kantaria egubakoitzean, hilak 6, Gaztelekuan, 22:30ean.

Erakusketak

ARRASATE

> **Gure-Leku** tabernak deitutako margo lehiaketara aurkeztutako lanak tabernan daude ikusgai.

BERGARA

> **Jesus Mari Narvaez** margolaria- ren erakusketa Kultura Etxean, apirilaren 8a arte.

> **Palestina komik** erakusketa Nahikari tabernan, apirilaren 8a bitartean.

> **Ramon Arantzabal** margolari bergararraren erakusketa Donostiako alde zaharreko Colchonería San Vicente tabernan, apirilaren 14ra arte.

ELORRIO

> **Mikel Berezibar** margolariaren *Beroyar* izenburuko olio erakusketa Arriola aretoko erakustokian.

EIBAR

> **Erakusketa. 'Republikia. 1931-2001'** erakusketa, Portalean, apirilaren 30a arte.

Lehiaketak

BERGARA

> **Bergara Hiria argazki lehiaketa** Euskal Herriko argazki zaletuei zuzenduta. Zuribeltzeko edo koloretako argazkiak aurkez daitezke (mota bakoitzeko lau gehienez).

Argazkiak 30x40 zentimetroko kartulinan aurkeztuko dira. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 22an bukatuko da. Sari banaketa ekainaren 8an egingo da. Irabazleak 25.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu, eta beste hainbat sari ere egongo dira. Argibide gehiago 943 76 30 90 telefono zenbakian.

> **XVI. literatura lehiaketa.** Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek esku har dezake. Adinaren arabera, bost talde egingo dira. Lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dira. Lanak bidaltzeko edo entregatzeko epea apirilaren 25ean bukatuko da, eta sariak ekainaren 9an banatuko dituzte. Argibide gehiago udaleko euskara zerbitzuan, 943 77 91 66 zenbakian.

> **Pentekoste jaietako kartel lehiaketa.** Lanak entregatzeko epea maiatzaren 2an bukatuko da. Argibideak Kultura Etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

OÑATI

> **II. Oñati Hiria literatura sariak.** 18 urtetik gorako edonork har dezake parte. Lan guztiak euskaraz eta argitaragabeak izan beharko dute. Pertsona batek lan bakarra aurkeztu ahal izango du modalitate bakoitzean (ipuina, olerkia eta bertso-paperrak). Lanak entregatzeko epea maiatzaren 11n bukatuko da. Argibide gehiago Oñatiko Udaleko euskara edo kultura zerbitzuetan.

AZPEITIA

> **Kartel lehiaketa.** Euskal antzerki topaketaren XIX. ekitaldia dela eta, Azpeitiko Udalak kartel lehiaketa deitu du. Lehiaketan esku hartzeko mugaguna: apirilaren 30a. Edozeinek parte har dezake, gehienez hiru

lan aurkeztuz; lanak argitaratu barikoak izan beharko dira. Irabazleak 150.000 pezeta jasoko ditu. Argibide gehiago 943 15 72 00 telefono zenbakian.

BEASAIN

> **IV. Igartza literatur sorkuntzako beka idazle berrientzat.**

Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beren zatiren bat edota osotasuna inon argitaratu gabe dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak. Bekak 1.000.000 pezetako dirulaguntza izango du. Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da. Argibide gehiago Beasaingo udaleko euskara zerbitzuan, 943 02 80 50 zenbakian.

Ikastaroak

ARRASATE

> **Argazkigintza eta blo-dantza ikastaroak** (hastapen maila biak) antolatu ditu Udaleko gazteria sailak. Argazkigintzakoa (hastapen maila) maiatzaren 5etik aurrera izango da, zapatu goizetan, 10:30etik 13:30era. Bio-dantza ikastaroa maiatzeko zapatuetan, arratsaldean. Izena ematea eta argibideak Gazte Bulegoan,

943 77 00 65 zenbakian.

OÑATI

> **Erretzeari lagatzeko ikastaroa** apirilaren 23tik maiatzaren 28ra bitartean. Eskolak astelehenean izango dira. Izena ematea (2.000 pezeta) apirilaren 10a arte udaleko Gizarte zerbitzuan edo 943 78 04 11 telefonora deituta.

Deiak

ANTZUOLA

> **Elkarriren Bake Konferentziaren** aldeko herriko taldeak informazio mahaiak jarriko ditu domekan, hilak 8, 12:00etatik 14:00etara.

> **Begiraleak hartzeko deialdia.** Uztailaren 2tik 12ra umeentzako egingo dituzten ekintzen antolaketak dela eta, begiraleak aukeratzeko deialdia egin du Antzuolako Udalak. Euskaraz jakitea eta 18 urtetik gorakoa izatea beharrezkoa da. Izena ematea udaletxean edo liburutegian apirilaren 25era arte zabalik.

ARETXABALETA

> **Mendirra eta sagardotegira irteera** domekan, hilak 8, Murruxiko mendi elkarteak antolatuta. Txindokira igo ondoren, bazkaria sagardotegi batean egingo dute.

> Aretxabaletako Gazte

Asanbladak dei egiten die herriko gazte guztiei apirilaren 9ra arte, egunero, 19:00etan izango diren asanbladetan parte hartzeko. Udalak eskatzen duen proiektua landuko dute.

> **Aberri eguna** ospatuko da apirilaren 15ean. Herritarrendandik sortutako egitasmoa denez, egun garrantzitsu hau herri mugimendu bezala ospatu nahi dute antolatzaileek. Atxabaltar guztiei izango diren ekitaldietan parte hartzeko deia egiten zaie. Goizeko 11etan etxaldero jaurtiketa egingo dute, 11:45ean txalaparta, eguerdiko 12etan Meza Nagusia, ordu batean txalaparta saioa, eta jarraian Ikurrinaren irteera udaletxetik, eta kalejira trikitilariekin udaletxe zaharretan. Ikurrinari agurra 13:20an izango da, 13:30ean Ikurrina jarriko dute balkoian eta bertsoari saioaren ondoren, idatzi bat irakurriko dute. Azkenik, herri bazkaria egingo dute, 14:30ean. Bazkarirako izena ematea apirilaren 12ra arte zabalik dago Arlutzen.

ARRASATE

> **Korrikako azken festara,** Baionara, joateko autobusak antolatu ditu Erdu-AEK euskaltegiak. Autobusa, 9:00etan, 9.15ean eta 9.30ean aterako da domekan Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako autobus geltokietatik, hurrenez hurren. Txartelak (1.500



MUSIKA

VANS TOUR 2001

Vans Tour izenburuko jiraren barruan, Ignite (goiko argazkian), Snfu, Deviates, Venerea eta Powerhouse taldeak bisitari izango ditugu zapatuan Jam aretoan. Bost taldeek hardcore musika egiten dute. Kalifornian 1993 urtean sortutakoko Ignite taldea da beharbada ezagunena. Bergaran *A place called home* beraien azken diskoa aurkeztuko dute. *Veteran* izenburuko abestiarekin izugarriko arrakasta lortu dute Estatu Batuetan.

Noiz: Apirilaren 7an. **Tokia:** Bergarako Jam aretoan. **Ordua:** 22:00etan. **Sarrera:** 2.000 pezeta aurrez, 2.300 takilan.

Kontzertua

Nuevo Catecismo Catolico taldea
Arrasateko gaztetxearen 10. urteurrean

Apirilaren 7an 22:00etan

Zinema

ARRASATE / ALAI ZINEMA

Casi famosos

Egubakoitza: 19:00, 22:00.

Traffic

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna:
19:00, 21:30.

ARETXABAETA / KULTUR ETXEA

Alien, el octavo pasajero

Eguena, hilak 12: 22:30.

BERGARA / NOVEDADES

Prueba de vida

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna:
19:30.

Con la muerte en los talones

Eguena, hilak 19, Forum
Cinematographie: 21:30.

OÑATI / SANTANA

No te fallaré

Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Manuelita

Domeka: 17:00.

Santitos

Eguena, hilak 19, zine-kluba:
20:00.

EIBAR

UNZAGA

Torrente 2: Misión en Marbella

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30,
22:15.

RIALTO

Monkey Bone

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30,
22:15.

ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

Hannibal

Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

El grinch

Domeka: 16:30.

Memento

Eguena, hilak 19, zine-kluba:
21:30.

ELORRIO / ARRIOLA

Hannibal

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

AZKOITIA / BAZTARTXO

El verano de Kikujiro

Egubakoitza, zine-kluba: 20:00.

No te fallaré

Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 20:00.

Banpiro txikia

Domeka: 17:15.

GASTEIZ

GURIDI

¿En qué piensan las mujeres?

Egubakoitza eta zapatua:
17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:30,
20:00, 22:30.

Miss Agente Especial

Egubakoitza eta zapatua:
17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:00,
19:45, 22:30.

Descubriendo a Forrester

Egubakoitza eta zapatua:
17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:00,
19:45, 22:30.

Monkey Bone

Egubakoitza eta zapatua:
17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:00,
19:45, 22:30.

Colega, ¿dónde está mi coche?

Egubakoitza eta zapatua:
17:30.

Drácula 2001

Egubakoitza eta zapatua:
17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:30,
20:00, 22:30.

Titanes, hicieron historia

Egubakoitza eta zapatua:
20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 20:00,
22:30.

Torrente 2: Misión en Marbella

Egubakoitza eta zapatua:
17:30, 20:00, 22:30, 1:00.

Domekatik martitzenera: 17:30,
20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMAK

Miss Agente Especial

Egubakoitza: 17:30, 20:00,
22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45,
1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena:
17:30, 20:00, 22:30.

Enemigo a las puertas

Egubakoitza eta zapatua:
17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena:
17:15, 20:00, 22:30.

Dragones y mazmorras

Egubakoitza: 17:30, 20:00,
22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30,
22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30,
22:45.

Astelehena eta martitzena:
17:30, 20:00, 22:30.

Torrente 2: Misión en Marbella

Egubakoitza: 17:30, 20:00,
22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30,
22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30,
22:45.
Astelehena eta martitzena:
17:30, 20:00, 22:30.

Drácula 2001

Egubakoitza: 17:15, 20:00,
22:45, 1:15.
Zapatua: 16:15, 18:15, 20:30,
22:45, 1:15.
Domeka: 16:15, 18:15, 20:30,
22:45.
Astelehena eta martitzena:
17:15, 20:00, 22:30.

¿En qué piensan las mujeres?

Egubakoitza eta zapatua:
17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena:
17:15, 20:00, 22:30.

Chocolat

Egubakoitza: 17:30, 20:00,
22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45,
1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena:
17:30, 20:00, 22:30.

Antes que anochezca

Egubakoitza eta zapatua:
17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena:
17:15, 20:00, 22:30.

102 dálmatas

Egubakoitza eta zapatua:
16:15, 18:15.
Domekatik martitzenera: 17:15.

Titanes, hicieron historia

Egubakoitza eta zapatua:
20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 20:00, 22:45.
Astelehena eta martitzena:
20:00, 22:30.

MIKELDI ZINEMA

Digimon, la película

Astebarruan: 17:30.
Zapatua eta domeka: 16:30,
18:15.

Billy Elliot

Egunero: 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Antes que anochezca

Egubakoitza eta zapatua:
17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik martitzenera: 17:00,
19:45, 22:30.

Enemigo a las puertas

Egubakoitza eta zapatua:
17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik martitzenera: 17:00,
19:45, 22:30.

Dragones y mazmorras

Egubakoitza eta zapatua:
17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:30,
20:00, 22:30.

Amores perros

Egubakoitza eta martitzenera:
16:45, 19:45, 22:45.

Gracias por el chocolate

Egubakoitza: 17:30, 20:00,
22:30, 1:00.
Zapatua: 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:30,
20:00, 22:30.

Traffic

Egubakoitza eta zapatua:
17:00, 19:45, 22:30, 1:15.
Domekatik martitzenera: 17:00,
19:45, 22:30.

Tigre y dragón

Egubakoitza eta zapatua:
17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik martitzenera: 17:30,
20:00, 22:30.



PRUEBA DE VIDA

ZUZENDARIA: TAYLOR

HACKFORD.

AKTOREAK: MEG RYAN,

RUSSELL CROWE, DAVID

MORSE. > 13 URTE

Tecala herrialdean presa

bat eraikitzen ari dela,

Gobernuaren kontrako

talde batek *Peter*

Bowman ingeniaria (David

Morse) bahitu eta 3 milioi

dolarreko erreskatea

eskatuko du. Baina

Peteren enpresa egoera

larrian dago eta ezin dio

aurre egin txantajeari.

Gauzak horrela, *Alice*,

Peteren emazteak (Meg

Ryan) *Terry Horne*

adituaren (Russell Crowe)

zerbitzuak kontratatuko

ditu negoziazioa aurrera

eramateko.

TRAFFIC

ZUZENDARIA: STEVEN

SODERBERGH. AKTOREAK:

MICHAEL DOUGLAS,

CATHERINE ZETA-JONES,

BENNICIO DEL TORO. > 18

URTE

Aurtengo Oscarretan lau

sari eskuratu ditu filmak,

tartean zuzendari onenari

eta errepartoko aktore

onenari (Bennicio Del

Toro) zegozkienak. Droga

munduaren inguruko film

honetan Mexikoko mugan

lan egiten duen polizia

bat, drogaren aurka

diharduen epaile bat eta

senarra narkotrafikoaga-

tik epaituko duten

emakume ederra dira

protagonistak.

Gaueko Batxilergoa Arrasaten

Arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA

Santa Teresa, 25 • ARRASATE
943 79 44 47

Gaueko Batxilergoa egiteko
interesa baduzu, etor zaitez gure
bulegora, apirilaren 20a baino
lehenago. Animatu zaitez!

Bulego ordutegia: 09:00etatik 17:00etara



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE
943 79 27 27 • 943 79 13 55

Goienaren aurkezpena

Jendea goiz hasi zen iristen, joan den zapatuan, Euskadiko Kutxak Olandixon duen egoitza nagusira. Goienaren urteko batzar nagusia eta aurkezpena ziren egitekoak. Goienako ordezkariak, langileak, eta erakundetako zein enpresetako pertsona ezagunak elkartu ziren.

Batzar nagusirako, **Angel Bergaretxe** Aretxabaletakoa izan zen alkateetan lehena. **Joxerra Agirreurreta** Leintz Gatzagakoak, ostera, luxuzko ordezkaria bidali zuen, **Eugenio Otxoa Gerra**. Bezperan, Wrocław hirian hegazkina hartu, Varsovia beste bat aldatu eta Frankfurt hirugarrena hartu zuen, 12 ordu geroago Bilbora iristeko. Nekatuta, baina pozik joan zen Goienaren batzarrera. Polonian gustura dabilela esan zigun, baina hango dirua oso indartsu dagoenez, esportatzeko arazoak dituztela azaldu zuen. Arrasateko Udalak **Larraitz Trojaola** izan zuen ordezkari batzarrean. Gauzak hain xua-be joan ziren batzarrean, bilkura bera denok uste baino dezentelarenago amaitu baitzen.


Hamabiak laurden gutxitan hasi ziren gonbidatuak iristen. Hantxe ziren **Josemari Velez de Mendizabal** Eusko Ikaskuntzako kudeatzailea, **Agustin Markaide** Eroskiko zuzendari orokorra, **Jesus Oleaga** Forumeko kudeatzailea eta Bergara, Elgeta eta Oñatiko alkateak, besteak beste. **Jabier Retegi** aita ere iritsi zen esport jantzita, eta hasieratik garbi esan zuen Goiena proiektuan erabat sinesten zuelako joan zela ekitaldira. **Luis Mari Bandres** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatua **Lorea Leñizbarrutia** Euskara zuzendari aretxabaletarrak lagunduta etorri zen. Han izateko, beste ekitaldi bat alboratu izan zuen Oionen. **Alfonso Gorroñoitla** Goienaren eskuorria aldean zuela sartu zen aurkezpena, hango argazkien laguntzarekin kooperatibista gazte haien artean nor zen nor jakiteko. Ekitaldia hasita zegoela, **Xanti Val** EHko parlamentari ohia iritsi zen, beste bi lagunekin batera. Eta pixka bat atzerago, **Mila Elzendi**, Topaguneko liberatua. **Jose Antonio Altuna Txatillo** enpresa gizon mondragoetarra ere orduan iritsi zen. Honek zutik jarraitu zituen hizlarien jardunak. **Mikel Irizarrek** konexioak eta kohesioak hitz egin zuen. **Josemari Muxika** Topaguneko lehendakariak galdera erretoriko bat egin zuen, zer arrazoi egon daitekeen jakin nahian Goienari ez laguntzeko. "Bat ere ez" erantzun

zuen, Bergara, Elgeta eta Oñatiko alkateei begira bezala. **Jabier Retegi** elkarlana agindu zuen, Mondragon Unibertsitatea eta Goienaren artean. Eta **Luis Mari Bandres** ere, behin eta berriro zorionak eman ostean, Seneca filosofoaren esaldi batekin amaitu zuen: "Nora doan ez dakienarentzat, sekula ez dago haize onik". Horregatik, haizerik eraginkorrenak opatu zizkion Goienari. Justu pintxoak eta edariak prest zeudenean amaitu zen batzarra. Durangoko **Saltsan** etxeokoa lan bikaina egin zuten, primerako pintxoak ekarri zituzten eta. Pintxo eta pintxo artean, **Jose Antonio Altunak** adierazi zuen *Goienkaria* bezalako bat behar zela Euskadira, nahiz eta aitortu, "jendeari askoz gogorrago egiten zaiola egunkariz aldatzea ematez trukatzera baino". **Alfonso Gorroñoitla** berriz, MEDUO zer zen azaldu zigun, handik ez urruti: "Mancomunidad Escolar De la Universidad de Oñate", **On Jose Maria Arizmendiarraren** proiektu bat, bailara osorako, azkenean mamitu ez zena. **Esteban Uribesalgo** Astoreko jabeetarikoa bat, **Jesus Anduaga** oñatiarraren agertu zen. Ternua markarekin sekulako itxaropenak dituztela esan zuen, proiektu bikaina dutela marka horretarako. **Alfonso Gorroñoitla** eta **Esteban Plazaola** rekin zegoela, **Josemari Velez de Mendizabalek** azaldu zuen, **Pedro Inazio Barrutia**, XVIII. mendean Arrasateko eskribau aramaioarra, Udala abadearen semea zela. Beste biak barrezka geratu ziren. Beste txoko batean, **Asier Aranguren** eta **Amaia Garal** senar-emazte gazteak zeuden. Jordaniara joan bezperetan, pozik zegoen Asier. Izan ere, hiru hilabete barru umetxo bat izango dute.


Horrela zegoen **Andoni Urzelai**. GOITB utzi eta gero, eleberri bat idatzi du, eta dagoeneko Susa argitaletxera bidali du, argitaratu diezaioeten. **Xabier Letona Ataxi** kazetari mondragoetarra lruñetik etorri zen, han bizi da eta. **Argia** aldizkari koordinatzailea da eta, esan zigunez, bere anaia **Enrike** doktore tesia ari da prestatzen Murtziako espetxean, Barkoxeko euskararen gainean. 14:30ak aldera, Goienako batzuk bai-



Goienako Idazkari Nagusi Mikel Irizar, Lehendakari Esteban Plazaola eta Idazkari Marijo Deogracias, batzar nagusia hasi aurretik.



Lorea Agiriano GOITBkoa, Asier Aranguren elkarrizketatzen.



Bergara eta Arrasateko alkateak alde batetik...

no ez ziren geratzen Olandixon, denak ere ezin poza. Bazuten motiborik horretarako, bai baitziduri Senecaren haize

onak harro-harro jarri dituela Goiena proiektuaren ontziko belak.

ARGAZKIAK: ANDER GILLENEA

Eskerrik beroenak Goiena elkartearen izenean: **Euskadiko Kutxari** bere egoitza nagusia uzteagatik, eta Goienaren batzar nagusia eta aurkezpen ekitaldia egiteko emandako erratasun guztiengatik. Agurrak eta hitzaldiak eskaini zituztenei: Arrasateko alkate **Xabier Zubizarretari**, Euskadiko Kutxako **Inazio Garrori**, MUko errektore **Jabier Retegiri**, Topaguneko lehendakari **Joxemari Muxikari** eta Gipuzkoako Kultura Diputatu **Luis Mari Bandresi**. Eta baita, bertaratutako den-denei. Mila esker.



Komunikabideek arretaz jarraitu zuten Goienaren aurkezpena.



...eta Elgetakoa eta Leintz Gatzagakoa bestetik.



Saiolaneko zuzendari Armin Isasti, Bergara eta Oñatiko alkateak.



Alfonso Gorroñoigoitia, Jose Antonio Altuna eta Mikel Irizar.



Astore, Eroski, Forum..., enpresa ezagunen etakoak ere izan ziren.



Zubizarreta eta Irizar, Diputazioko euskara zuzendariarekin.



Ohorezko mahaia Kultura diputatuaren hitzaldia entzuten.




Euskadiko Kutzako areto nagusia leporaino bete zen Goienaren aurkezpen ekitaldian.



Goiena multimedia egitasmoa oso interesgarria da Retegirantz.




Jose Mari Velez de Mendizabal, Jabier Errasti eta Luis Fernandez.




Saiolano ordezkariek, MUko errektore Jabier Retegirantzekin.



Retegi, Leanizbarrutia, Bandres, Irizar, Muxika eta Orobengoa.




Luis Mari Bandres
Kultura diputatua



Alberto Gorritiberea
Kazetaria (Herri Irratia)




Agustin Markaide
Eroskiko zuzendari gerentea



Luis Fernandez
Kazetaria, interneten aditua



Xabier Letona
Kazetaria (Argia)



Jose Antonio Altuna
JMAko ugazaba

"Gure txikitasunean behar beharrezkoa da errealitate zerbait egitea. Kohezioa (elkarlana) eta konektioa munduarekin konektatuta (egotea) beharrezkoak dira".

"Goienarekin eskualde-tasunari ematen diogu garrantzia. Kanpotik dator kigunari kaso egin, bai, baina etxekoa, barrukoa, gurea bultzatu behar dugu".


"Beste batzuk jarraitu beharreko norabidea markatzen du. Horrelako beste hamar bat proiektu sortu balira, euskararen etorkizuna sendotuta egongo litzateke".

"Zenbat aurreratu den zaila dirudi sinistea. Oinarri sendoak jarri ziren eta produktu txiki eta duinak sortu ziren hasieran. Beste salto hau inportantea da oso".

"Bailara honek prentsa eta komunikazio munduan aintzindari dela erakutsi du berriz. Herrien artean sortzen den elkar komunikazio hori oso inportantea da".

"Aurrerapen handia da bailararentzat. Gure bailara oso bizirik dagoela erakusten du eta beste batzuren artean proiektu hau eredu interesgarria izan daiteke".


Eguraldia



ZAPATUA, 7

Egun lainotsua izango dugu zapatua. Euria egingo du, eta txingorra ere egin dezake. 1.200 metrotik gora, berriz, elurra. Temperatura jaitsi egingo da. Haizeak gogor joko du, ipar-mendebaletik.

Nafarroako Erribera: Euritsua. Errioxa: Euritsua. Pirinioak: Euria nagusi.



DOMEKA, 8

Oso lainotsu izango ditugu zeruak, eta euri txikia egingo du. Temperatura ez da aldatuko. Haizea ipar-mendebaletik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Zaparradak. Errioxa: Zaparradak. Pirinioak: Euria eta elurra.


ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

12,7° C

ILARGIAREN ALDIAK: APIRILA



EGUZKIA: APIRILAREN 8a



Urkuluko urtegia

Berriro ere gora egin du ur mallak. Joan zen astean %95,22 zen; oraingo astean, berriz, %95,8. Badrudi, gainera, aurrerantzean ere gorantz segituko duela, eguraldi euritsua dago-eta iragarrita.

%95,8

Mezak

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan 08:30, 12:00. Zapatuetan 08:30, 12:00, 19:30. Domeka eta jaiegunetan 09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gastelaniaz, Kriptan), 18:30.

Telefonoak

((112)) SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Table with 2 columns: Service name and phone number. Includes DYA (Orokorra), DYA (Antzuola), Gurutze Gorria, Suhiltzaileak, Ertzaintza, Arrasate, Bergara, Oñati, Osasun Etxeak.

Table with 2 columns: Location and phone number. Includes Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Hies Ekimena, Udaltzaingoak, Antzuola, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati.

GARRIAOK

Table with 2 columns: Service name and phone number. Includes Eusko Trenbideak, PESA, Taxiak.

Table with 2 columns: Location and phone number. Includes Bergara, Eskoriatza, Oñati, RENFE.

DEBAGOIENA

Table with 2 columns: Location and phone number. Includes Mankomunitatea, Abere hiltegia, Mendi nekazaritza elkarte, Nekazaritza Ganbera, Kapirixo, Zerqa Bulegoa, Euskara Taldeak, Debaquene, Arrasate / AED, Aretxabal / Loramendi, Bergara / Jardun, Eskoriatza / Axtroki, Oñati / Laixan, Hondakindegia Alternatiboak.

Table with 2 columns: Location and phone number. Includes Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Oñati, Kultura Etxeak.

Udalak

Table with 2 columns: Location and phone number. Includes Antzuola, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati.

Zozketak

Table with lottery results for BONOLOTOA, LOTERIA PRIMITIBOA, ONCE, and Kupoitzarra. Includes EGUAZTENA 4, MARTITZENA 3, ASTELEHENA 2, EGUBAKOITZA 30, DOMEKA 1, ZAPATUA 31, Saritzarra EGUENA 29.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta Igaieak

Table with bus routes: DONOSTIA-GASTEIZ, BERGARA, ARRASATE, ESKOLA J, ARETXABALETA, ESKORIATZA.

Table with bus routes: GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA, DONOSTIA-BILBO, BERGARA-ONATI.

Table with bus routes: DONOSTIA, ANTZUOLA, BERGARA, ELGETA, BERGARA-ONATI.

Table with bus routes: BILBO-DONOSTIA, ONATI-BERGARA, BILBO-ARRASATE-ONATI.

Table with bus routes: BERGARA-ARRASATE-BILBO, BILBO-ARRASATE-BERGARA.

Table with bus routes: BERGARA-ONATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA, BERGARA-ONATI-ARRASATE-BILBO-ARRASATE-BERGARA.

Table with bus routes: ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-ONATI-BERGARA-EIBAR, BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑA, IRUÑA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR.

Hitz gurutzatuak

Luma

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ezker eskuma
1/ Aurrenekoa. 2/ Miatu. Musika nota. 3/ Japoniako hiria. Huts. 4/ Nerbio. Enara. 5/ Erregai-mota. Edo. 6/ Bostehun eta-bat. Alfonbra. 7/ Bokala. Afrikako estatua. Jardun. 8/ Istu, listu. Barazki mota. Islantia. 9/ Ukimendua. Zenbaki bakoiti. 10/ Ahuntzaren ar. Ergel.

Goitik behera
1/ Elkarlana. 2/ Altxa, jaso. ...tak, erlojuaren hosa. 3/ Kezka. Geure. 4/ Denboralea. Kontsonante errepikatua. 5/ Sodioa. Entzuteko moduan. 6/ Juntagailua. Legeak. 7/ Neukake. Rüntgen. Iodoa. Bokala. 8/ Kontsonantea. Atsegina. Zenbaki bikoiti. 9/ Ostatueta langileak. 10/ Denbora. Tu, ttu.

Bila-bila 7



Umore giroan

Izaro Aperribai

JAIRAKO OPARIAK

Juntatu die jai batian euskaldun bat, galiziar bat eta katalandar bat. Eta euskaldunak eroan ditte jairako sei botela txakolin. Galiziarak, berriz, beste sei botela albariño eta katalandarrak..., sei lagun.

AMAGIÑARREBA

Ertzainen komisarian:
- Egun on, ertzain jauna, amagiñarreba desagertu dela eta, salaketa jarri nahiko neuke.
- Baita neuk ere.

BIGOTIA

- Aitta, aitta, atian gizon bat bigotiakin.
- Ba, esan joateko, nik badaukat bat eta.

XERRA

Jatetxe baten, kamare-ruak bezeruari:
- Eta, jauna, zelan aurkitu duzu xerra?
- Bueno, patatak mugitu eta hor, azpizan, zeuan.

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola




Zein herritan daude "erosotasun indize" altueneko etxebizitzak?

Etxebizitzek dituzten instalazio eta zerbitzu batzuetan (telefonoa, bainua, berogailua...) oinarrituta, "erosotasun indizea" deitutako adierazle bat atera ohi da. Asmatuko ote zenuke 1996ko erordaren arabera, zein herritako etxebizitzetan zuten erosotasun indize altuena?

- Oñati
- Aretxabaleta
- Elgeta

Eraztun zuzena: Oñati (75,7), Aretxabaleta (73,3) eta Elgeta (64,9).

Soluzioak



Ezker eskuma
1/ Lehengoa. 2/ Arakatu. SI. 3/ Nara. Akats. 4/ Kiro. Elai. 5/ Ikatz. Ala. 6/ Di. Zertia. 7/ E. Gana. Ari. 8/ Tu. Kuli. IS. 9/ Zirra. Bat. 10/ Aker. Kalku.
Goitik behera
1/ Lankideta. 2/ Eraiki. Tik. 3/ Harra. Gure. 4/ Eraikiza. Rr. 5/ Na. Ozenki. 6/ Eta. Arauk. 7/ Nuke. R. 11. A. 8/ G. Alala. Bi. 9/ Ostalarak. 10/ Aisia. Istu.

Horoskopoia

Berenize

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Gizartea eraldatzeko proiektu berrien bila zabilta. Izan zaitez bultzatzaile hutsa eta ahaztu goraiapamenak.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Zaindu zeure barrukoa eta ez zaitez bidean galdu. Emaitzek bide berriak zabalduko dizkizute zure bizitzan.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Zoriak zure ausardia eta kemena sarituko ditu. Ez zaitez geratu anibalentzian.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Lehendik jakin arren, onartzen ausartzen ez zinen erakutsiko dizu irudipen batek. Orain da ekiteko unea.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Orain da zeure burua agertarazteko garaia. Jakinarazi itzazu zure asmoak.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Zure jarrerarik ohikoenak sendotuko dituzu, eta hain asperrak izan ez daitez bide berriak bilatzen ahaleginduko zara.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Estuasunean jarriko zaituzten egorak agertuko dira. Zintzoa izan beharko duzu zeure buruarekin eta gauzak bere lekuan jarri.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Zure inguruan, lanean batez ere, traban daukazu guztia kentzen ahaleginduko zara gogo handiz. Egin ezazu astiro eta beldurrik gabe.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Zure ahalmen handiak arriskuan jarriko zaitu une honetan. Hausnartu ezazu ea ahalmen horrek guztiak benetan mesede egiten dizun.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Ez duzu nahiko kanpoko ezer jakitea. Zeure buruarekin gustura zaude eta, lehenengoz, ez diozu inori ezer azaldu beharko.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20




Egia osoa agerian uzteko aukerak bilatu. Ezkutuan eta ilunpean dagoe-na aurkituko duzu, eta justizia egin dezatela lortuko duzu.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Agertokiaren aurrean, edozein dela ere, daukazu beldurra gainditu beharrean zaude zeure burua egoki agertarazteko. Zureganako besteen iritzia onak izango dira, ez izan barregarri geratzearen beldur.



GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

JAIOTAKOAK


Maiete Larrañaga Diaz de Gereñu Eskoriatzan, martxoaren 16an.
Oier Ganboa Perez Eskoriatzan, martxoaren 24an.
Jokin Beitia Urrutia Arrasaten, martxoaren 25ean.
Elene Arruti Lapeira Bergaran, martxoaren 26an.
Joane Iglesias Brey Bergaran, martxoaren 26an.
Mikel Aspe Jauregi Aramaion, martxoaren 27an.
Jon Fernandez Alzela Antzuolan, martxoaren 27an.
Itxaso Arzak Aperribai Bergaran, martxoaren 29an.
Aitor Arroyo Perez Arrasaten, martxoaren 29an.
Ian MacNeill Montaña Arrasaten, martxoaren 30ean.
Maialen Fernandez Arenaza Aretxabaletan, martxoaren 31n.
June Billar Lumbreras Arrasaten, apirilaren 2an.

HILDAKOAK

Timoteo Izurrategi Zubia Eskoriatzan, martxoaren 24an, 85 urte zituela.
Vicente Eguren Agirrezabal Bergaran, martxoaren 28an, 75 urte zituela.
Domingo Zelaian Oskilea Arrasaten, martxoaren 28an, 73 urte zituela.
Nerea Kortabarria Amores Aretxabaletan, martxoaren 31n, 17 urte zituela.
Pedro Mari de Diego Martinez Aretxabaletan, martxoaren 31n, 34 urte zituela.
Josefa Valdes Altimasvez Arrasaten, martxoaren 31n, 93 urte zituela.
Juan Retolaza Barrutia Elgetan, apirilaren 1ean, 84 urte zituela.
Maria Angeles Lizarralde Lizaur Oñatin, apirilaren 1ean, 72 urte zituela.
Carmen Pizarro Yañez Bergaran, apirilaren 3an, 86 urte zituela.
Edelmira Gordoncillo Prieto Arrasaten, apirilaren 4an, 94 urte zituela.

EZKONDUAK


Lierni Uribarren Gil eta Iker Etxabe Azkoaga, Arrasaten, martxoaren 24an.
Maria Yolanda Palma Paunero eta Jose Jaime Bengoa Madina, Arrasaten, martxoaren 24an.
Juan Manuel Iribecampos Gallastegi eta Lourdes Iluminada Aleu Pedrosa, Arrasaten, martxoaren 24an.
Jesus Romero Santacristina eta Maria Blanca Zufiria Lopez, Arrasaten, martxoaren 31n.
Eneko Urrizalki Jauregi eta Miren Itxaropena Ayesa Azkoaga, Arrasaten, martxoaren 31n.



Aitor Arroyo Perez mondragoetarra eta **Mikel aita**, santurtziarra. Aitor martxoaren 29an jaio zen, eta 3 kilo pisatu zuen. **Mari** da ama, mondragoetarra.



Itxaso Arzak Aperribai eta **Nerea** ama, bergararrak biak. Martxoaren 29an jaio zen Itxaso, eta 2,700 kilo pisatu zuen. **Xabier** da aita, donostiarra.




Maialen Fernandez Arenaza atxabaitarra gurasoekin. **Jone** da ama, Mendiolako; aita Adolfo da, Musakolako. Martxoaren 31n jaio zen Maialen, eta 3,310 kilo pisatu zuen.



Markel Laskurain Arrese-Igor eta **Arantza** ama, bergararrak biak. Markel apirilaren 1ean jaio zen, eta 3,610 kilo pisatu zuen. **Pablo** da aita, bergararra bera ere.



Janire Gonzalez Pineda eta **Maria Jose** ama, bergararrak biak. Janire apirilaren 2an jaio zen, eta 3,280 kilo pisatu zuen. **Brigido** da aita, durangarra.



Ian McNeill Montaña mondragoetarra eta **Pilar** ama, bergararra. Ian martxoaren 30ean jaio zen, eta 2,930 kilo pisatu zuen. **Jonathan** da aita, Edinburgokoa.

ESKER ONA

Josefina Uriarte Murgiondo

Arrasaten hil zen
2001eko martxoaren 31n
80 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Conchita Aranguren Campos

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilak 15, 12:30ean, Bergarako San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Petra Agirre Gonzalez de Durana

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilak 8, 11:30ean, Bergarako Santa Marinaran.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felisa Agirre Gonzalez de Durana

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilak 15, 12:30ean, Bergarako San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Candida Aldekoa Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilak 15, 12:30ean, Bergarako San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Honorio Agirregabiria Muruamendiaraz

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilak 15, 12:30ean, Bergarako San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Josefa Valdes

Arrasaten hil zen
2001eko apirilaren 1ean



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jose Mari Alkorta Mujika

Bergaran hil zen
2001eko martxoaren 24an,
74 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

Telebegi

Magazina

Jada urtebete abian jarri zen, baina zapatuan ateak zabaldu zituen guztiendako. Berenak, aurkezpen ofizialek zuten duten protokoloa bete zuten. Hantxe entzun genituen proiektuaren azalpenak, hainbat protagonisten iritziak, eta ondoren, luntxa. Azken hori, unetik preziatuena, ez beste munduko zerbaitekin edo edaten delako. Bai, ostera, ingurukoekin hartu-emanak sendotzeko aukera dagoelako. Gonbidatu dezente egon zen, eta horien artean Debagoieneko alkateak. Horietako bat gerturatu zitzaidan, eta astelehenero bere etxean sartzen naizela esan zidan. Fisikoki sartu ez, baina astelehenero ikusten omen du parte hartzen dudana saioa. Gustatu egin zitzaidan Oñatiko alkateak esandakoa. Eta orduan pentsatu nuen, hain gustura ikusten badu Euskal Telebistan egiten duguna, zergatik ez dugu antzerako zerbaitekin egiten gure telebistan, made in Debagoiena saio bat.

Gauza gara horrelako zerbaitekin egiteko, beti ere GOITBk dituen murriztapenak ahaztu barik. Baina telebistako nire lagunek horrelakorik eginez gero, Oñatiko alkate atsegina gogoz geratuko litzateke. Izan ere, oraindik Oñati, Elgeta eta Bergarako Udalek ez dute diru laguntzarik eman Goiena komunikazio proiektu aintzindariari laguntzeko. Hori bai problema Oñatiko alkate jauna! Arazoak, dena dela, konponbidea du. Gainera, aurkezpenean berba egin zuten guztiak, instituzio publikoek barne, proiektua goraiatu baino ez zutela egin kontuan izanda. Ziur nago laster etorriko direla gaur arte kale egin duten Udalen dirulaguntzak eta, ondoren, gure magazina. Inguruko gorabeherekin une atseginak pasazaziko dugun magazina.



Itxaro Zubillaga

GOIENA KIROLETAN

Domeka, 12:00

Puntu garrantzitsuak jokoan

Zapatuan, partidu garrantzitsua jokatu du Bergara taldeak Agorrosin futbol zelaian. Izan ere, Bergara eta zapatuko aurkaria, Sodupe, sailkapeneko zuloan daude. Bi taldeendako, hortaz, oso garrantzitsuak izango dira jokoan dauden hiru puntuak mailari eusteko. GOITBk domeka eguerdian eskainiko dizue. Partidua zapatuan jokatu dute, 17:00etan, Bergarako Agorrosin futbol zelaian. Eta GOITBk domeka eguerdian eskainiko du norgehiagoka. Esatari lanetan Anartz Agirre kazetaria izango dugu.

ASTEBETE

Egubakoitza, 21:05

Arizmendiarieta gogoan

Astebete saioan Markiñara joango gara, Jose Maria Arizmendiarietaren jaioterrira, hain zuzen. Arizmendiarieta jaio zeneko baserrian izan ginen bere arreba Maritxurekin, eta anaia Jose Maria Arizmendiarietaren inguruko hainbat pasarte gogora ekarri zizkigun. Markiña aldean badago proiektu bat Jose Maria Arizmendiarietaren inguruko museo bat irekitzeko. Gaur, egubakoitza, hortaz, Arizmendiarietaren inguruko erreportajea landuko dugu Astebete saioan. Marijo Deogracias kazetariak zuzentzen du saioa, eta Mikel Lezamiz eta Eneko Azkarate ditu lagun.

AURREZ AURRE

Eguaztena, 21:05

Juan Villar aurrez aurre

Elgetako Juan Villar Elizburu ekarriko du Iban Arantzabal Goienkariako produkzio arduradunak Aurrez aurre saiora. Juan Villarren bizitzan garrantzi handia izan du egurrak; izan ere, hamabost urte zituela tallagile lanetan hasi zen Elgeta aldean. Gaur egun, 91 urterekin oraindik ere egurgintza ez du alde batera utzi. Hortaz, egurgintza gogoko baduzue eta Juan Villarekin bere bizitzaren inguruan kontatzeko dituen hainbat pasarte entzun gura badituzue, eguaztenean duzue aukera, 21:05ean. Juan Villarekin batera, Iban Arantzabal elgetarra izango dugu.



Asteko programazioa / Apirila 6-12

EGUBAKOITZA 6	ZAPATUA 7	DOMEKA 8	ASTELEHENA 9	MARTITZENA 10	EGUAZTENA 11	EGUENA 12
13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Saioen errepikapena Gatza eta berakatza, Xeheberri, Alkatearekin berbetan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete	12:00 Futbola: Bergara-Sodupe	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	Ez dago emisiorik. GOITBk jai hartuko du, eta apirilaren 23an bueltatuko da.
13:40 Gatza eta berakatza		13:30 Saioen errepikapena Gatza eta berakatza, Xeheberri, Alkatearekin berbetan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	
13:50 Sarrera doan (errepikapena)			13:50 Astebete	13:50 Goienasport	13:50 Xeheberri	
20:00/20:30: Berriak			14:15 Futbola: Bergara-Sodupe	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	
20:30 Non-zer			19:45 Gatza eta berakatza	20:00 Berriak	20:00 Berriak	
20:35 Berriak			20:00 Berriak	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	
21:05 Astebete			20:30 Non-zer	20:35 Berriak	20:35 Berriak	
21:30 Soinuz blai			20:35 Berriak	21:05 Xeheberri	21:05 Aurrez aurre	
			21:05 Goienasport			

Barruko kontuak

ORDU TXIKIETAN KORRIKA

Aurten ere, ordu txikietan heldu da Korrika 12 gure bailarara. Ekitaldi horrek erakartzen duen jendetza ikusita, GOITBk ere esfortzu handia egin gura izan zuen. Anartz Agirre eta Xabier Urtzelai kazetariak eta Andoni Goiti kameralaria izan ziren korrika 12-ren jarraipena egiten. Korrika 21:15ean heldu zen Bergarara eta 03:30ean utzi zuen Debagoiena. Emaitza ikusita, txalotzeko moduko lana egin zuten guztiak ere.

GOITB OPORRETAN

GOITBko lantaldeak oporrak hartuko ditu datorren astean. Zuen etxeetan ez duzue ikusiko ohiko programazioa, baina, hala ere, egongo da jendea telebistan lanean. Izan ere, zenbait aldaketa egin nahi izan ditugu, eta opor garaia aprobetxatuko dugu horretarako. Oraingoz, ez dugu azalpen gehiagorik emango. Hortaz, gonbidapena egingo dizuegu apirilaren 23an Goiena Telebista ikusteko.

Kamera aurrean



"Zuk ikusten badozu jendea hain pozik lekukoa hartzean, bada horrek neke guztiak kentzen dotzuz"

Gotzon Barandiaran | Korrika 12-koa
"KORRIKA 12" (2001-04-3)



"Hurrengo egingo den elkarrizketa GOITBn ikusi ahal izango dute gure herritarrek"

Patxi Basauri | Elgetako alkatea
"ALKATEAREKIN BERBETAN" (2001-04-4)

Atzeskua

MAIDER OSA

Edurne Azuara/Aktorea

Zelakoa da Lorena?
 — Bi aurpegi ditu.
 Jendaurrean pertsona seguru itxura ematen du, gauzak oso argi dituena. Hala ere, zalantza piloa du: ikasketak utzi ditu, ez daki bere bizitzarekin zer egin, nahiko mutil lotsagabea du...
 — Zergatik aurkeztu zinen *castingera*?
 — Basauriko antzerki eskolan ari nintzen ikasten, eta ikaskide guztioi Pauso-

katik deitu ziguten. Behartuta sentitu nintzen, antzerkia ikasten ari nintzelako eta interpretazioaren esparruan lan egin nahi nuelako.
Makrocastinga zelakoa zen azaldu zigutenean, neure buruari esan nion: "Bueno, hemendik etxera", baina ezustean, aukeratu egin ninduten.
 — Hautatze frogetatik, zer iruditu zaizu gogorre-na?

— *Castingean* oso lagun onak egin genituen, talde polita sortu zen, ordu luzez egon ginen elkarrekin frogaz froga. Bukaeran, pertsonaia bakarra lortzeko lagunarekin borrokatu beharra, lagunaren arteko lehiakortasun hori, gogorra egin zitzaidan.

— Aktore jaio egiten da, ala ikasi egin behar da?

— Nik uste dut jendea ez dela aktore jaiotzen, ikasi egiten da. Dena dela, batzuek berezko sena izango dute, eta beste batzuek, berriz, sekula ez dira aktore izango.

— Zein telesailetan gustatuko litzaizuke parte hartzea?

— Nahiago izango nuke zinema probatzea. Telesailetan pertsonaia bakarrarekin lotzen zaituzte, eta zinemak interpretazioa gehiago lantzeko aukera ematen du. Gainera, nire ustez, filmetan askoz serioago hartzen dira gauzak, eta interpretazio aldetik ere aktoreari gehiago eskatzen zaio.

— Zein egoera iruditzen zaizu antzezteko zailena?

— Momentuaren arabera. Barre egiteko sekuentziak zailagoak iruditzen zaizkit. Negar egitea edo drama apur bat sartzea errazago egiten zait, betiere, nire izaera dela eta.

— Gidoiak eskatuko balu, biluztuko zinateke kamera aurrean?

— Telesail honetan, ez. Gustu txarrekoa irudituko litzaidake.

— Zergatik aukeratu zenituen antzerki ikasketak?

— Sukaldaritza ikasi nuen lehenengo. Dena dela, Bergaran antzerki ikastaro baten izena eman nuen, eta bukaeran antzezlan bat egin genuen. Erabat bete ninduen. Horregatik, Basauriko antzerki eskolan probatzea erabaki nuen.

— Pertsonarengan, zein kalitate miresten dituzu?

— Zintzotasuna eta entzuten jakitea.



"Nik uste dut jendea ez dela aktore jaiotzen, ikasi egiten da"

"Telesailetan pertsonaia bakarrarekin lotzen zaituzte, eta zinemak interpretazioan gehiago lantzeko aukera ematen du"

► Bergararra / 23 urte / 'Hasiberriak' telesailko aktorea

AIPAGARRI



NATALIO MAIZTEGI
 Oñati / Dantza irakaslea

Tuterako Aminet taldearekin (Nafarroako Erriberako ezinduen elkarte), Holandara joango da Aste Santuan, gurpilen gaineko munduko dantza txapelketara. Natalio dantza irakaslea da: saltsa, merengea, etabar erakusten ditu. Gurpil gainean dantzan egiten duten abilezia erakutsiko dute Tuterako ezinduek Holandako txapelketan.



DAVID AZURZA
 Tolosa / Orfeoien zuzendaria

Joan den zapatuan, Noveldas Jen (Alacant) jokaturako erlijio musikako lehiaketan gailendu zen Bergarako Orfeoiko zuzendaria da. Bi sari jaso zituen Orfeoik: lehen saria (500.000 pta) eta hautazko obraren interpretazio onenaren saria (50.000 pta). Estatu mailako lehiaketa izan zen, eta beste lau talderekin batera aritu zen lehian Orfoia. Parte hartzeko hogeitik gora taldek eman zuten izena.

DONOSTIAKO AQUARIUMA

%10

-eko deskontua sarreran txartela hau erakutsiz. Donostiako Aquariuma ikusteko aukera ezin hobea duzu!

ORDUTEGIA:

- 10etatik 20etara.
- Lehiatila ordubete lehenago itxiko da.

